

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko ekainaren 24a • V. urtea • 205. zenbakia • DOAN BANATZEKO



BERGARA
Enpresetan euskara bultzatzeko plana aurkeztu dute /6

ALFONTSO GORROÑOGOITIA
"Gizartea eta ekonomia aldatu arren, kooperatibaren balioek zutik jarraituko dute" /7



OÑATI
Bizikletan ibiltzeko sare bat egitea aztertuko dute /6

ASTEKO GAIA: 11 IGERILEKU DAUDE ZABALIK DEBAGOIENEAN

Bainu denboraldian, igerilekuak aukeran

Bainu denboraldia hasi da Debagoieneko igerilekuetan. Non aukeratu badugu: ibarreko bost herritan 11 igerileku daude, aire

zabalekoak zein estaliak. Gehienak udal zerbitzuak dira; bi pribatuak dira. Ordutegi berezia antolatu dute hemendik eta irai-

la arte, eta beste zerbitzu batzuetaz ere goza dezakete erabiltzaileek: kafetegia, eguzkia hartzeko lekua... /3



UBANE MADERA

Zapatuan ireki zuten Musakolako igerilekuetan udako denboraldia. Eguaztenean pozik zebiltzan neska-mutikoak.

Gurean ez dugu lehorterik, Urkuluko urtegia %88an dago-eta

Lehortea arazo bihurtu da azkenaldian Espainiako leku askotan. Gipuzkoan, ordea, urtegiak nahiko beteta daude, eta oraingoz ez da ura eskuratzeko problemarik egongo. Ibarra urez hornitzen duen Urkuluko urtegia ere ia beteta dago, ekainean euri gutxi egin duen arren, eta nahikoa dugu aurrez pilatutako urarekin. Hain justu ere, ekainean barrena metro koadroko 15,1 litro euri egin du

gurean (Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak dira).

Urkuluko urtegia da ibarreko herriak urez hornitzen dituen, eta gaur egun %88,63 dago beteta. Guztira, 10.000.000 litroko edukiera dauka Urkuluk eta bertatik Debagoieneko 69.700 biztanlek jasotzen dute ura. Hemen, Espainiako edozein lekutan baino ur gehiago kontsumitzen dugu batez beste egunean. /4

ARRASATE

Amaia Arrietak betea du epaileek jarritako zigorra

Astelehenean kaleratu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak Jarrai, Haika eta Segi erakundeen auziaren ebazpena. Ebazpen horrek dio taldeok ez direla erakunde terroristak. Auzi horretan epaitu zuten Amaia Arrieta arrasatearra. Hala, epaiaren arabera hiru urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra dago Arrietari, baina betea du jadanik, lau urte egin dituelako prebentzio espetxealdian. /5

BERGARA

UNEDek datorren ikasturtearen berri eman du

Oraingo astean eman du Bergarako UNEDek datorren ikasturteko eskaintzaren berri. Hurrengo ikasturtean ez dute karrera berririk eskainiko, eta hogeitabiurterako karreratik gora emango dute. Heziketa telematikoa eta aurrez aurreko bateratzeko aukera izango da, gainera. Berritasun guztien gainean berba egin dugu Juan Jose Alvarez zuzendariarekin. /5

Udako argazkiak 'Asteleheneko Goienkaria'-n

Oraingo astelehenean hasita, udako astelehenean, zuek, irakurleok, bidalitako udako argazkiak argitaratuko ditugu. Badakizue lehiaketa antolatu dugula eta sari bikainak eskura ditzakezuela. Baldintza bakarra: udako argazkiak izatea.



Kalitatezko ametsak

bede

Dendak

Zarugalde, 25 / ARRASATE
Tel.: 943 77 18 35

Kamera hau nahi? Zoaz 2. orrialdera.



MULTIOPTICAS

EGUZKITAKO BETAURREKOAK

EROSI eta ERAMAN

FRUIT Bildumako

BESTE BAT

OPARI




Kolore ezberdinak aukeran • 60 eurotik gorako erosketetan • Eskaintza baliagarria 2005/07/31 arte.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

lbargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEN GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Astelehenean, ekainak 27, lehenengo argazkiak!



Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
 - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
 - Arrasate: Otorala Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ekainaren 27tik aurrera *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaia baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria: Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



2



3



- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaia agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI bidaiak
mereri duzu

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

kiñu
argazkilariak

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

09:00etatik 21:00etara.

Goienkaria
ASTELEHENEN
astelehenean, aste bukaera osoa

Udako denboraldia hasi da Debagoieneko igerilekuetan

Kanpoko sei igerileku eta barruko bost, ibarreko bost herritan

LEIRE KORTABARRIA

Udako denboraldia hasi dute Debagoieneko kirol zerbitzuek. Igerileku batzuk itxi eta beste batzuk ireki dituzte -Arrasaten, igerileku estaliak itxi eta kanpokoak daude orain zabalik- eta, denetara, hamaika igerileku egongo dira zabalik Debagoieneko bost herritan, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Denak udal igerilekuak dira, Arrasateko bi igerileku pribatu izan ezik. Denboraldia bukatuko da, goizen, abuztuaren 31n; beranduen, Bergaran, irailaren 15ean.

Igerileku gehienengoz, inguruan dago terraza edo solariumen bat, kafetegia... eta denetan, soroslea.

Aretxabaletan, abuztu osoan itxi beharrean, orain arte bezala, hilaren 7ra arte eta 29tik aurrera zabalik egongo da, bi egun horiek barne.

TARIFAK

Ondoko taulan dago uztaileko zerbitzuaren laburpena. Hala ere, horrez gainean kontuan hartu beharreko ohar gehiago dago.

Igerileku guztietan, kirol zerbitzuko bazkide edo Debagoieneko kirol txartel bateratuaren jabe ez direnek eguneko sarrera edo bonuen artean aukera dezakete. Bonu mota asko dago: heldu edo umeendakoa, familiarra, ikasle eta langabeendako tarifa bereziak... Tarifak desberdinak dira herriaren arabera. Esaterako, Arrasaten, heldu batendako hamar eguneko bonu bat 48,10 euro kostatzen da; Oñatin, 36,95; Bergaran, 34,35; Eskoriatzan, 29,70; eta azkenik, Aretxabaletan, 27,70 euro. Horrez gain, kontuan hartu behar da ume eta helduendako prezioen muga-adina desberdina dela kasuaren arabera: Eskoriatzan, 18 urte da; Oñatin, 21 urte.



XABIER URTZELAI

Arrasaten, Musakolako igerilekuak daude zabalik, eta baita Uxartekoak ere, Udala auzoan. Kanpokoak dira denak.

Bergaran, aurten lehenengoz, bakarrik udako denboraldirako bazkide egiteko aukera dago: 18 urtera artekoendako, 31,40 euro da; helduendako, 47,35. Orain

arteko esperientziari begira, Udal Kirol Sailak dio jende gehienak egun bakoitzeko sarrera erosten duela, eta bonuak gutxiago eskatzen dituztela.

Azkenik, Debagoieneko kirol txartel komuna dutenek instalazio horiek guztiak erabil ditzakete bazkide moduan. Txartel horren tarifa da 116,50 euro helduenda-

ko, 81,15 gazteendako eta 162,35 familiendako, horri deskontatuta nork bere herrian ordaindu duen herriko bazkide kuota.

Jendea badabil txartela eskatzen eta erabiltzen, gutxika-gutxika. Txartel mankomunatuarekin edo hori gabe, edozelan ere, debagoiendarrak herri batetik bestera mugitzen dira kirol instalazioak eta igerilekuak erabiltzeko: hala, bergarar askok Oñatira jotzen dute.

BESTE AUKERA BATZUK

Igerilekura joateko joera aldatu egiten da herri batetik bestera ere. Hala, jakina, igerilekua baduten herrietakoek ohitura handiagoa dute. Bestalde, igerilekuri ez duten herrietakoek ez dute ibarreko beste inora joateko ohitura handirik ere: hala, elgetar askok nahiago dute hondartzara joan, eta antzuolarrak, berriz, Urretxuko igerilekura joaten dira sarritan. Jende askoren gustuko bainurako beste leku bat da Usako erreka, Oñatin: oñatiarrak eurak ez ezik, debagoiendarrak ere joaten dira hara, gazteak, batez ere.

Landa, Garaio eta Uribarri Ganboara ere debagoiendar asko eta asko joaten da, eta aurten, ez bakarrik bainatzera: izan ere, denboraldi honetako berritasun nagusiak dira bisita gidatuak eta bizikleta alokairua ipini dituela Arabako Foru Aldundiak. Bainu denboraldia iraila artekoa da.

UDA ONA

Bainatzeko eta udaz gozatzeko aukera faltan ez daude debagoiendarrak. Eguraldia ere lagun izango dela ematen du: hala, Pello Zabalak iragarri du uda ona, eguzkitsua, euri gutxirekin eta bero itogarririk gabe. Uztailean, egun nahasiago batzuk egon daitezke, eta abuztua beroa izango da gurean.

DEBAGOIENeko IGERILEKUAK / Uztaileko ordutegia					
	Zenbat	Mota	Ordutegia	Prezioa (Hel./Ume)	Zerbitzuak
ARRASATE Musakola	3	Kanpokoak	09:30-20:30 egunero, denboraldi osoa	5,00 € / 2,50 €	Terraza, ping-pong mahaiak, kafetegia, janari makinak
ARRASATE Uxarte jatetxea	2	Kanpokoak	09:00-20:00 egunero, denboraldi osoa	5,00 € / 3,00 €	Terrazak, hamakak, kafetegia
BERGARA	1	Estalia	07:00-21:00 astegunak 09:00-21:00 asteburuak	3,75 € / 2,55 €	Zelaia, hamakak alokatzeko
OÑATI	2	Estaliak	09:00-21:00 astegunak 10:00-22:00 asteburuak	4,80 € / 2,50 €	Terraza, kafetegia
ARETXABALETA	1	Estalia	08:30-21:30 astl.-zap. 09:00-13:15 dom.	3,65 € / 1,85 €	Solariuma, kafe-makina
ESKORIATZA	2	Estali bat eta ireki bat	Estalia: 09:00-21:00 astegunak, 10:00-20:00 zap., 09:30-14:30 dom. Ireki: 10:00-20:00 astl.-zap. 10:00-12:00 domekak	3,75 € / 1,40 €	Terraza, kafetegia, hamakak

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 297
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
OÑATE TEL.: 943 718 080 FAXA: 943 718 045

SEIN
gruposaldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA

A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA

**MATRIKULA
EPEA
ZABALIK**
Maila goreneko
diplomatura

GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Uda Ikastaroak
Matrikulazioa zabalik!

AKADEMIA
BASTIDA

Internet
Informatika
Programazio informatikoa
Mekanografia
Autocad
Photoshop, Freehand
Dreamweaver, Flash
Laguntza eskolak: Ingenieritza,
Enpresa Zientziak, Batxilerra, DBH
(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es



GOIENKARIA

Urkuluko urtegiak 10.000.000 litroko edukiera dauka eta 69.700 biztanle hornitzen ditu urez.

Gurean ez dugu lehorre arriskurik, Urkuluko urtegia %88an dago-eta

Ekainean euri gutxi egin arren, nahikoa dugu aurrez pilatutako urarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lehorre arazo bihurtu da azkenaldian Espainiako leku askotan. Gipuzkoan, ordea, urtegiak nahiko beteta daude eta oraingo ez da ura eskuratzeko problemarik egongo. Ibarra urez hornitzen duen Urkuluko urtegia ere ia beteta dago.

Espainiako hainbat lekutan azkenaldian dagoen lehorreak kezka sortu du. Hala ere, beroa gure artea ere heldu den arren, ez dago zertan ur faltagatik kezkatu; Gipuzkoako urtegiengan pilatutako ura edukieraren %88tik gorakoa da, batez beste, Gipuzkoako urtegi guztietan.

Ekainean barrena metro koadroko 15,1 litro euri egin du gurean (Bergarako San Juan auzoan

jasotako datuen arabera). Euri asko ez bada ere, aurrez pilatutako ura nahikoa izan da herritarren beharrei erantzuteko; eta Gipuzkoako Ur Partzuergoan adierazi digutenez, ez dago inolako arazorik gurean, beste leku batzuetan lehorre egon arren.

URKULU IA BETETA

Urkuluko urtegia da ibarreko herriak urez hornitzen dituen,

Gipuzkoarrok urteko eta biztanleko 300 litro ur kontsumitzen ditugu

eta gaur egun %88,63 dago beteta. Guztira, 10.000.000 litroko edukiera dauka Urkuluk eta bertatik Debagoieneko 69.700 biztanlek jasotzen dute ura.

KONTSUMO ALTUA

Gipuzkoarrok Espainiako edozein lekutan baino ur gehiago kontsumitzen dugu batez beste egunean. Azken urteotako estatistikei erreparatuz gero, ikus daiteke urteko eta biztanleko batez besteko kontsumoa 300 litro dela.

Ur Partzuergotik diote, "urtegiengan nahiko ur badago ere, kontsumoa txikitu egin behar da datoen urteotan. Gehiegizkoa da uraren %35 galdutakoa edo ordaindu gabea izatea. Ez dago fugarik gabeko sarerik, baina daudenak konpondu behar dira".

DEBAGOIENEAN LABUR

Juan Garmendiaren gaineko liburua aurkeztu du Velez de Mendizabalek

Josemari Velez de Mendizabalek astelehenean aurkeztu zuen Donostian, *Juan Garmendia Larrañaga. Solasean* izeneko liburua. Antropologo eta euskalari entzutetsuarekin egindako elkarrizketa saioretatik ateratako liburua da eta Eusko Ikaskuntzak argitaratu du. Garmendiak bere ibilbidearen errepaso egiten du eta baita Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza edo Joxe Migel Barandiaranena. "Denetik egin dugu berba astean bitan azken hamaika urteotan eta elkarrizketa horietan apuntatu ditudanak jaso ditut liburuan" esan zuen aurkezpenean idazle arrasatearrak.


Ezker Batuak 'Euskal Y'-arekiko darabilen jarrera salatu du AHT Gelditu! Elkarlanak

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak kritikatu egin du Ezker Batuaren jokaera *Euskal Y*-arekiko. Talde horrek dio EBk mugimendu ekologista "saldu" duela eta "EAJren aginduetara makurtu" dela gobernuan sartzearen. Era berean dio Madrazo bazterrek nahasten ari dela Jaurlaritzako Garraio Sailaren tesiak bultzatzearen.



Testu liburu espainolen aurkako protesta

Euskal edukietan oinarritutako heziketa bultzatzen duen Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak Euskal Herriko ikastetxetan testu liburu espainolak eta frantsesak ez erabiltzearen aldeko kanpaina egiten dihardu. Izan ere, euren esanetan testu liburu asko Espainian eginak dira. Kanpaina horren baitan, martitzenean kontzentrazioa egin zuten Bergarako posta bulegoaren aurrean, eta aldi berean testu liburu espainol bat bidali zuten Espainiako Hezkuntza Ministeriora. //A.




4x4

aukera zabalena






Saltzeko eta erosteko
Nahi duzun modeloa ez badaukagu,
bilatu egingo dizugu

la berriak eta bigarren eskukoak
(bost urte baino gutxiagokoak)



4QUATTRO4
 Aukerako 4x4 ibilgailuak
 Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
 ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
 E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

ELKARRIZKETA/BERGARAKO UNED-EN ESKAINTZA

JUAN JOSE ALVAREZ/BERGARAKO UNED-EKO ZUZENDARIA

“Datorren ikasturtean ez dugu titulazio berririk eskainiko”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren ikasturterako UNED-Bergarak hogeitunibertsitate karreratik gora eta ikasketa eskaintza zabala aurkeztu ditu. Heziketa telematikoa eta aurrez aurreko bateratzeko aukera izango da, gainera.

Zein berrikuntza eskainiko ditu UNED-Bergarak datorren ikasturterako?

Datorren ikasturterako ez daukagu karrera berririk. Azken bost urteotan berrikuntzak eskaini ditugu, baina aurretik ez. Tituluak Europako arauetara moldatzeko asmoa dela eta, Madrilen erabaki dute pixkanaka joatea. Izan ere, orain titulu berri bat eskainiz gero, ondoren aldaketak egin beharko genituzke, eta ez du merezi. Beraz, eskaintza sakondu dugu arautu gabeko heziketaren arloan: idazle eskola, psikomotritzitate eskola, liburutegiko laguntzaileen eskola...

Bestalde, lanean dihardugu, plan berriak berriago baterako jautzia ahalik eta modu egokien egiteko.

Zenbat titulazio eskaintzen dituzue guztira?

Guztira, 27 dira titulazioak; baina kontuan hartu behar da hainbat ikasketatan plan zaharra eta berria dauzkagula. Beraz, ikasgai batzuk eta azterketak ezberdinak dira, nahiz eta karrera amaieran titulua bera izan.

Teknologia berriak ezinbestekoak dira zuen lanean, ezta?

Ikasketen osagarri da guretzat telematika. Gureak ez du unibertsitate birtual izan nahi, baina horregatik ez ditugu alboratuko teknologia berriak; baliagarriak baitira bai guretzat eta baita ikasleentzat ere. Esaterako, Internet bidez eskura ditzakete ikasleek aurreko ikasturteetako azterketak. Ikasleek etxean egiten dute lan eta badira batzuk Bergarara etortzen



Juan Jose Alvarez zumaiarra da UNED-Bergara ikastetxeko zuzendaria.

direnak; bai eskolak jasotzera edo koordinatzaileekin egotera. Beraz, informatika bidezko sistema ez da sekula guretzat bakarra izango hezkuntza eskaintza egiterakoan. Gure hezkuntza proiektuaren oinarria bi aukeren arteko nahasketa izango da.

“Gureak ez du unibertsitate birtual izan nahi; telematika osagarria da”

“Euskara, katalana, ingelesa, frantsesa eta alemana ikas daitezke UNEDen”

Hizkuntzak ikasteko aukera ere eskaintzen duzue.

Euskara, katalana, ingelesa, frantsesa eta alemana urrutitik ikasteko ikastaroak daude UNEDen. Hiru mailatako eskolak ematen ditugu auto ikaskuntza tutorearen laguntzarekin bateratuz. Proba bat gaindituta edo titulazio egokia aurkeztuz gero, ez da beharrezkoa izango lehenengo mailatik hasia. Oraindik akordiorik lortu ez badugu ere, ahaleginak egiten ari gara UNEDeko titulua eskuratuta hurrengo mailatan ikasketak Hizkuntza Eskola Ofizialean jarraitu ahal izateko.

Matrikulatzeko epea noiz arte dago zabalik?

Ikasle kopuruari dagokionez, ez dugu mugarik jartzen; hala ere, ikasle berriek lekua gordezko euren eskaria aurkeztu behar dute eta horretarako uztaiera arteko epea izango da. Ondoren, irailaren 20tik azarora bitartean egingo dira matrikulazioak. Izenematea Internet bidez egin daiteke honako helbidean: www.uned.es/ca-bergara. Edo ikastetxean bertan.

Amaia Arrietak betea du Auzitegiak jarritako zigorra

Jarrai-Haika-Segi auziarene ebazpena asteon eman dute

I.A.

Astelehenean kaleratu zuen Auzitegi Nazionalak Jarrai, Haika eta Segi erakunde auziarene ebazpena. Ebazpenak dio taldeok ez direla erakunde terroristak; ETAREN helburu berberak dituzten arren, armak ez dituztela erabili. Hori bai, legez kanpo dauden erakundeak direla ebatzi du eta horregatik bi urte eta erdi eta hiru urte eta erdi bitarteko zigorra ezarri die auzipetu gehienei. Lau auzipetu absolbitu egin ditu epaileak, Fiskaltzak euren aurkako salaketa kendu ondoren.

Auzi horretan epaitu zuten Amaia Arrieta arrasatearra. Epaiaren arabera hiru urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra dago, baina betea du jadanik, lau urte egin dituelako prebentzio espetxealdian. Espetxe zigorrak gain, 3.000 euroko isuna eta hamar urtean erakunde publikoetan lan egiteko debekua ezarri dizkiote.

ERREKURTSOA

Amaia Arrietak, Jarrai-Haika-Segi auziko gainontzeko auzipetuek bezala, epaia aztertzen dihardu eta denak zain daude jakiteko zein izango diren epaiaren benetako eraginak.

Gainera, Fiskaltzak dagoeneko azaldu du errekurritu egingo duela erabakia. Era berean, aztertzen dabilta euren zein neurri hartuko dituzten. Hori guztia aztertu ondoren, gizartearen aurrean balorazioa egin eta azalpen gehiago emateko moduan izango dira.

Arrietari hiru urte eta erdiko espetxe zigorra dagokio; lau egin ditu prebentzio espetxealdian

Ekainean

30
Egun paregabe

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu... edo plazak bukatu bitartean.

EKAINAREN 27TIK, ASTELEHENETIK, AURRERA

Costa Brava **225** €
Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
CALELLA. 07/9tik 07/22ra. 8 egun- 7 gau. Miami hotela***. 37.437 Pta
Mantenu erdia. **1. LEHEN HAURRA DOHAINKA.**

EKAINAREN 28TIK, ASTEARTETIK, AURRERA

Benidorm **425** €
Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
08/15etik 08/26ra. 8 egun- 7 gau. Best Western Victoria hotela****. 70.714 Pta
Mantenu erdia. **LEHEN HAURRA %50EKO DESKONTUA.**
BIGARREN HAURRAK %70EKO DESKONTUA

EKAINAREN 29TIK, ASTEAZKENETIK, AURRERA

Huelva **345** €
Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
MATALASCAÑAS. 07/16tik 08/4ra. 8 egun- 7 gau. El Cortijo hotela****. Gosariak barne. 57.403 Pta
1. ETA 2. HAURRAK %50EKO DESKONTUA.

EKAINAREN 30TIK, OSTEGUNETIK, AURRERA

Galicia **150** €
Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko
O'GROVE. 07/16tik 07/31ra. 8 egun-7 gau. San Vicente hotela***. 24.958 Pta
Gosariak barne. **LEHEN HAURRA %50EKO DESKONTUA.**

EROSKI / bidaiak
merezi duzu

www.viajeseroski.es

C&C
AKADEMIA

Matrikula zabalik!

LLONGUERAS

IRAKASKUNTZA ZENTROA
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA

Aurrena, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarral!

C&C Llongueras diploma ofiziala
Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa

Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKA

ANTZUOLA

Gaztetxokoan gurasoendako batzarra egingo dute martitzenean

Gaztetxokoan amaitu dute ikasturtea. Denen artean erabaki zuten uztailean eta abuztuan Errekalden duten lokala ixtea. Izan ere, udako hilabeteetan hainbat aukera dituzte gaztetxoek eta jende gutxi joaten da Gaztetxokora.

Datorren martitzenean, hilak 28, gaztetxoen gurasoendako batzarra antolatu dute; Errekaldeko lokalean izango da batzarra, 19:00etan. Hantxe berba egingo dute Gaztetxokoko begiraleek eta Udaleko arduradunek, lokalaren funtzionamenduaren gainean. /A.I.



EDU MENDIBIL

BERGARA

Herriko enpresetan Euskara Plana martxan jarriko dute

Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko planaren aurkezpena egin zuten martitzenean, prentsaurrekoan. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren haritik, egunero urrats txikiak eman eta epe luzera helburua zera da: belaunaldi berriak lanean euskaraz aritzeko enpresa prestatzea. Lan esparru batzordean sindikatuetako ordezkariak eta enpresaburuak izango dira, besteak beste.

Hasiera baten, tamaina handiko bi enpresatan eta tamaina erdiko 11 enpresatan egingo dituzte aurkezpenok. Horien ostean, enpresa txikiak deituko dituzte gauza bera egiteko. Emun Kooperatibak egingo ditu dinamizazio lanak. Helburua euskara plana martxan jartzeko enpresak animatzea dela esan zuten aurkezpenean. /E.M.

ARAMAIO

Jaien ostean, udako ikastaroak: 1789-1848ko Euskal Herria aztergai

Uztailaren 4tik 7ra egingo dute Aramaioko IV. Uda Ikastaroa. 1789-1848 bitarteko Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta artea aztertuko dituzte 14 adituk. Arratsaldean izango dira eskolak, 16:00etatik 20:00ak arte. Horrez gainera, hitzaldien ondoren mahai-inguru bat izango da eguneko hizlariarekin. Hitzaldiak euskaraz, frantsesez eta espainieraz izango dira, baina aldi bereko itzulpen zerbitzua izango da. Hizlarien artean, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburua izango da. /U.M.

ELGETA

Gas sarean mozketa egingo dute astelehenetik martitzenera

Udaletik jakinarazi dituzte, datorren ekainaren 27tik 28ra bitartean gas hornidura sarean mozketa egingo dute. Astelehen gaueko zortzietatik martitzen goizeko hamarretara arte kenduko dute gasa. Mozketa horrek herri osoan izango du eragina. Gasa kentzearen arrazoia da saihesbideko lanak direla eta gas sarean aldaketak egin behar dituztela; ondoren, estankotasun probak ere egingo dituzte urtero egiten duten moduan. Repsol enpresa arduratzen da Elgetan gas zerbitzuaz. /I.A.

ARRASATE

Gay eta lesbianen aldeko ekitaldiak izango dira datorren astean

Ekainaren 28an Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna da. Eta azkenaldian ez bezala, egun hori gogora ekarriko dute Arrasaten.

Batetik, egunean bertan kale bilkura izango da, Aralar, Batasuna, Ezker Batua eta Zutik alderdiek deituta, 19:30ean, Arbolapetan.

Bestetik, Zutik alderdiak beste pare bat ekitaldi antolatu ditu aste horretarako.

BERBALDIA, EGUENEAN

Hala, egunean, hilak 30, hitzaldia egingo dute, 19:00etan, Monterronen. Pil-pilean dagoen gaia landuko dute hizlariak: *Homo-sexualitatea, Eliza eta Giza Eskubideak*.

Horretarako, bi hizlari gonbidatu dituzte. Bata Aitor Urresti da. Bilboko Gotzaindegiko Gazteen Pastorealean arduradun izan da Aitor Urresti, harik eta kargutik kendu zuten arte, Elizak duen sexu dotrina auzitan ipini zuelako Aitor Urrestik.

Beste hizlaria, berriz, Mikel Martin da, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko kidea (EHGAM) eta Zutik alderdiko kidea. Zoritxarrez, joan den urtarilean oso ezagun egin zen Mikel Martin, Donostian militarrek jipoitu egin zutelako.

IPUIN KONTALARIA, JAI ZALEN

Bukatzeke, datorren egubakoitzean, uztailaren leian, Joxe Mari Karrera ipuin-kontalari eta idazlea gonbidatu dute. *Kondoibakoitzak bere istorioa dauka* izeneko ipuina kontatuko du hark Jai Zale tabernan, 23:00etan. /U.M.

Zertzelada

Kale bilkura deitu dute martitzenerako; hitzaldia antolatu dute eguenerako, eta egubakoitzerako, berriz, ipuin-kontalaria ekarriko dute

OÑATI

Herri barruan bizikletan ibiltzeko sare bat egitea aztertuko dute

Herri barruan bizikleta garraio moduan erabiltzea bultzatu nahi dute, eta horretarako azterketa tekniko bat egingo dute, jakiteko ea posible den eta bizikleta sarea nolakoa izango litzatekeen.

Horretarako, herriko ikastetxeak, auzoak, zerbitzuak eta lantegiak non dauden markatu dituzte

mapa batean, eta toki horiek bizikleta sarearekin lotu nahi dituzte. Bizikleta garraiorako erabiltzea bultzatu nahi dute eta autoa gutxiago erabiltzea.

Txirrinka taldeak egin zuten herri barruko bidegorriaren eskaera eta Udalarekin eta Aldundiarekin batera ari da bizikleta sare hori antolatzen. /O.E.



OIHANA ELORTZA

Bizikleta garraiorako erabiltzeko sarea egin nahi dute.

ARETXABALETAKO

Txakurren gaineko araudia gogora ekartzeko kanpaina egin du Udalak

Iaz onartu zuen Aretxabaleto Udalak animalien gaineko ordenantza, baina antza gutxi betetzen dute. Hori horrela, *Hau izan dadila bere arrasto bakarra* izenarekin kanpaina hasi du astean. Txakurren jabeek zuzenduta dago batez ere, eta dituzten betebeharrak gogorarazten dizkiete: txiparekin eta txertoa jarrita izatea txakurra, kalean lotuta eramatea eta zikinkeriarik sekula ez uztea kalean edo lorategietan. Era berean, jakinaz, poltsak banatzen dituztela udaletxean txakurren kakak jasotzeko. /M.A.

ESKORRIATZA

Ibarraundiren inaugurazioa eta turismo-ekintzen gaineko aurkezpena

Astelehenean, hilaren 27an, Ibarraundi museoa- ren inaugurazio ofiziala egingo dute. Horrez gain, herrira turismoa erakartzeko egin dituzten hainbat ekimen aurkeztuko dituzte. Besteak beste, museoaren eta udalerraren gaineko ikus-entzunezkoa eta triptikoa. Arteman enpresak egin ditu lan horiek, eta bisitariei harrera egiteko eta zer ikus daitekeen aditza emateko baliatuko dituzte.

Museoan hainbat erakusketa egiteaz gain, aurretik ez zuten turismo bulegoa ere izango da. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Arlaban gaineko lurralde plana hilabete amaierara arte ikusgai

Ekainaren 30a arte egongo da udaletxean plan hori ikusgai. 701.000 metro koadroko lur eremua jaso dute, eta lau kalifikazio mota egin dituzte. Lursail bat zona turistiko edo baserri eremu izendatu dute, eta beste bat nekazaritzako eta industriako zona.

420 EURO KZGUNE BERRIAK

Gatzagako Udalak 420 euro ordaindu beharko ditu KZgunea Garro jauregitik Sormen zegoen lokalera eramatearren. Uste baino aurrekontu garestiagoa jaso dute. /X.U.

Duela gutxi Diputazioaren saria jaso zuten kooperatibismoaren fundatzaileek kooperatiba Gipuzkoan zabaltzeagatik. Orain, Eliza katolikoarena, doktrina jakin bat aplikatzearen. Sasoian dago oraindik kooperatiba.

OIHANA ELORTZA

Zer moduz ibili zinen zapatuan Arantzazun egin zizueten omenaldian?

Hunkigarria eta esanahi handikoa izan zen guretako. Elizaren sari bat zen eta hori gauza serioa eta garrantzitsua da guretako. Sentipen asko eman digu sari horrek, eta bi hitzetan laburtzen dira: obedientzia eta erantzukizuna. Obedientzia, gotzainaren nahia bete behar genuelako, eta erantzukizuna, elizaren sari batek garrantzi itzela duelako guretako.

Jende asko batu zineten.

Asko harritu ninduen horrek. Goi mailako agintariak eta ordezkariak egon ziren.

Nola jakin zenuten zuek Joan Paulo II.a aita santuak aitormena egin nahi zizuela?

On Jose Maria Arizmendiarrietaren inguruan zerbait egin nahi zuelako, dezentetan elkartu gara Juan Maria Uriarte gotzainarekin azken bi urte hauetan. Bileretako batean, hark esan zigun Ormaetxeari eta bioi, asmoa zuela guri ematea Aita Santuaren aitormena. Aho zabalik gelditu ginen eta esan genion ez genuela horretan sartu nahi. Irribarrez entzun zuen hark gure erantzuna. Sei bat hilabetera, Gaspar Martinezek deitu zigun, Bilboko elizbarrutiko idazkariak. Ezetz esan genien berriro. Bitartean, Uriarterekin elkartzen ginen noizean behin Arizmendiarrietari buruz hitz egiteko eta dagoneko paperak bidali zituela esan zigun bosgarren edo seigarren bileran.

Setienek ere izan du zerikusia, ezta?

Oraintxe, egun hauetan, enteratu naiz duela hamar bat urte Setien bera hasi zela gai hau mugitzen.

Eliza izan da oinarrietako bat kooperatiba sortzeko?

On Jose Maria Arizmendiarrietari egon ez balitz, ez dut uste kooperatiba sortuko genukeenik. Hark bultzatuta hasi ginen gu lanean, hura zen oinarri nagusia, ezinbestekoa. Gauzak egiteko eta lortzeko hartu behar den konpromisoa azpimarratzen eta defendatzen zuen hark.

Haren leloa zen: aldatu egin behar da gaur egun dagoen enpresa egitura, ez delako justua eta bidezkoa. Elizaren doktrinarekin bat zetorren enpresa egitura lortu behar zela zioen, eta ideiak errealitate bilakatu behar zirela.

Gaurko kooperatibismoaren oinarriak lehengo berak dira?

Ez da erraza duela 50 urte inguruko egoeran aplikatu zirenak gaur egunera ere egokitzea. Baina gaur egun ere, egunero lanean ikusten da langileen kooperatiba dela, irabazien banaketa bidezkoa. Balio horiek difuminatzen doaz poliki-poliki eta batzuek pentsatuko dute dagoeneko desagertu direla, baina ez da horrela. Balio horiek kooperatibismoaren identitate balioak dira eta hortxe jarraituko dute beti.

Agian kooperatibismoa sentitzeko, bizitzeko, era aldatu da, baina mende erdi pasa da hemengo lehen kooperatiba sortu zenetik, eta denbora horretan gauzak aldatu egin dira. Gizartea bera eta ekonomia beste batzuk dira orain. Baina esze-



AINZANE AGIRRE

Alfonsito Gorroñoigoitia

ARRASATEKO KOOPERATIBEN MUGIMENDUKO SORTZAILLETAKO BAT

“Gizartea eta ekonomia aldatu arren, kooperatibaren balioek zutik jarraituko dute”

KOOPERATIBISMOAREN HASIERA

“Elizaren doktrinarekin bat zetorren enpresa eredua egitea zen gure helburua, eta eredu kooperatiboa aukeratu genuen, guretako garrantzitsuak diren oinarriei erantzuteko”

TXINAREN MEHATXUA

“Txinak ekar dezakeen neurrigabeko konpetentzia heltzen bada, gerrikoa lotu beharko dugu; horrek konponbide gogorrak ditu, eta borrokarako bidea aurkitu beharko da”

natokia ez ezik, aktoreak ere aldatu dira. Oraingo herritarra eskubideekiko sentiberagoa da lehengo baino. Gure belau-naldia gosearen belau-naldia da eta lanari garrantzi handiagoa ematen zitzaion formari edo moduari baino.

Zein izan zen kooperatibismoa sortzeko lehen pausoa?

1955eko urrian erosi genuen Ulgor, eta horixe izan lehen erosketa. Baina ez zen kooperatiba izan 1959ko apirila arte. Hala ere, kooperatibismoaren mugimendua

hasi zen sortu zirenean Euskadiko Kutxa, Lagun Aro eta kooperatiben arteko elkar-tea, eta hezkuntza mailan lanean hasi ginenean. Pertsona askok egin dute lan kooperatibismoa sortzeko, ez hasieran ginen bostok bakarrik.

Zein zen zuen hasierako helburua?

Elizaren doktrinarekin bat zetorren enpresa eredua egitea zen gure ideia. Kooperatiba aukeratu genuen, eredu hori zelako aukera handien zituena guretako garrantzitsuak ziren oinarriei erantzuteko.

Kooperatibak eskaintzen zigun, besteak beste: lanaren lehentasuna kapitalaren aurrean, enpresa demokrazia langileen botoen bidez eta etekinak denendako izatea eta ez bakarrik kapitalarendako.

Pentsatu zenuten inoiz gaur egun duen tamaina hartuko zuenik?

Ezta inondik ere. Bitxikeria bat esango dizut: San Andres auzoko Laxarte izeneko lursaila erosi genuen Ulgor egiteko. Gaur egun eraikita dagoenaren laurdena zen, gutxi gorabehera. Bi pabilioi egin genituen hasieran. Gaueko bederatzietan ateratzen ginen orduan lanetik, eta egun batean, etxera abiatu aurretik, Luis Usatorreri esan nion: “Hau dena betetzen badugu, pozik joango naiz Sanperioren ortura”. Arrasateko antzinako hilerria zen Sanperioren ortua.

Zenbat diru jarri zuten lehendabiziko bazkideek?

1959an eratu zen Ulgor kooperatiba moduan baina bizpahiru urte lehenago hasi zen jendea dirua jartzen. Langile bakoitzak 50.000 pezeta jarri zituen orduan. Gaur, 1.700.000 pezeta balio du kopuru horrek. Orduko langileak gaurkoak baino zailtasun handiagoak zituen kopuru hori batzeko. Batzuek lagunei eta etxeko-ekatu zieten eta beste batzuek epetan ordaindu zuten.

Balioez gain, ekonomiak ere izango du garrantzia enpresaren arrakastan, ezta?

Bai, eta hori lortzen da zuzendaritza eta gerentzia lan onak eginda. Gure kooperatiban jende bikaina egon da enpresa egiteko lanean, eta hori ikusi egiten da.

Jesus Larrañaga, Luis Usatorre, Jose Mari Ormaetxea eta Alfonsito Gorroñoigoitia. Elkarrekin entzuten ditugu beti lau izenak. Baina nolako da bakoitza? Ze ekarpen egin zion bakoitzak kooperatibismoari?

Luis Usatorre teknikari ikaragarri ona zen. Proiektzioak egiten ere oso ona zen. Lanabesak eta lehengaiak oso ondo ezagutzen zituen. Trokelak egiten zituzten tailerreko arduraduna izan zen urtetan. Garagartzako lantegian, adibidez, hark gidatu zuen fabrikazioren linea. Hark hartu zuen ardura guztia, eta inaurratu baino lehentxeago hil zen.

Jesus Larrañagak lan asko egiten zituen, baina ikaragarri ona zen *marketing*-ean eta merkatuan. Urte askoan Ulgor-ko gerentea izan zen.

Jose Mari Ormaetxea, berriz, nik ikusi dudana enpresaburu azkarrena da. Ikaragarriko ahalmena du enpresa aurrera eramateko. Adibidez, Euskadiko Kutxa egiteko azpiegitura guztiaz bera arduratu zen eta Ikerlan ere bere agindupean sortu zen. Gipuzkoako kooperatiba asko ere Ormaetxearen laguntzaz sortu dira.

Ni, berriz, Ulgor-ko presidentea izan naiz 24 urtez eta arlo hori ezagutzen nuen. Presidentziaren ardurak instituzionalak dira hein handi batean, eta Kooperatibaren alde sozio-instituzionalaz arduratzen nintzen.

Beti izan duzue harreman ona?

Ondo ulertzen genuen elkar, baina asko eskatzen genion bai geure buruari eta baita ondokoei ere. Gainera, ez ginen oso diplomatikoak izaten.

Nola ikusten duzu gaurko egoera? Gerrikoa lotaraziko digu Txinak?

Produktibitate mailarekin dute arazoa euskal enpresek eta baita kooperatibek ere. Nik ikusten dut beldurra badagoela Txinak ekarriko duen neurrigabeko konpetentziari, adibidez. Eta horrek konponbide gogorrak ditu. Gerrikoa lotu beharko dugu eta horrek esan nahi du, besteak beste, langile kopuruari eustea posible den ikustea edo diru sarrera gutxiago jasotzea. Borroka gogorra izango da, eta erantzuteko bidea aurkitu behar dute enpresek.

Gutunak

Berdintasunak
garrantzia baitu

Apirilaren 21ean, Espainiako Diputatu Kongresuan, Kode Zibilaren erreforma onartu zen lehen bueltan, sexu bereko bikoteei elkarrekin ezkontzeko eta umeak adoptatzeko bidea irekiz. Ekainaren 18an, Familia Foroak manifestazioa egin zuen Madrilen, eta Apezpiku-Konferentziak eta Alderdi Popularrak mobilizazio horretan parte hartu zuten.

Familiak garrantzia baitu zen manifestazioaren leloa. Baina Eliza katolikoren hierarkiak ez du arazorik gizarteko multzo zabal bat baztertzeko duen familia eredu defentsatzen jarraitzeko, ez du ikusi nahi guraso bakarrek familiak daudela, banandutako, dibortziatutako, ezkondu gabeko bikotez osatutakoak, bi ama edo bi aita dituzten umeak, e.a.; ez dute ikusi nahi elizak bedekintutako, hil arteko eta umeak edukitzeko egindako ezkontza pertsona bakoitzaren aukera dela, inork ezin diona inposatu.

Beti gizartearen atzetik. 80ko hamarkadan dibortzio eskubidea arautu zen, ondoren abortuarena, geroago izatezko bikoteak; Eliza eta eskumako alderdiak beti azaldu izan dira aldaketa hauen kontra. Eliza ohituta dago Estatuaren alde tik pribilegioak jasotzen, gizarte zibila bere eremu partikularra balitz bezala jokatzeko du, pertsonen aukera intimoetan ere sudurra sartuz. Buruko min handia ematen dio nola eta norekin bizi garen edo oheratzen garen. Umeen defentsan ari direla diote, sexu ezberdineko ama eta aita behar baitute. Guk diogu maitasun, babes, konprentzio eta inguru eraginkorraren bitartez hezten direla umeak modu integral eta orekatuan, hori dela benetan garrantzizkoena eta sexu bereko bikote batek ere ziurta diezakeela. Haurren eskubideaz hainbeste arduratzen badira, noizko gerraren ondorioz umezurtz gertatzen diren umeen aldeko beste manifestazio erraldoi bat? Eta gosez egunero hiltzen diren milaka umeren alde, eta bultzatzen duten sexu harreman eredu dela eta gaixorik jaiotzen diren umeen alde? Familia eredu horren inposaketaren ondorioz, zenbat eta zenbat pertsona kondenatu ditu sufrimendura, jasanezinezko harremanak mantentzera, indarkeriara eta mendekotasunera?

Homosexual eta lesbien seme-alabek mesprezua eta bazterkeria jasaten badute, aste hauetan familiaren sasi-defendatzaileek erakutsi dituzten agribitate, autoritarismo eta gizartetaren kontrako jarrerengatik izango da, ez gurasoen sexuagatik. Aukera ezberdinak egiten dituztenenganako giro intransigente hau bazterketaren hazia da-eta.

Jainkoaren izenean edo familia eredu mugatzaile baten izenean norberaren pentsaeran sartzen ez direnei bizi nahi duten moduan bizitzea ukatzea, pertsona bezala gure erara garatzeko dugun

eskubidea ukatzea ez da bidezkoa, baina, gainera, krudela da. Krudela, baita, katoliko eta aldi berean homosexual edo lesbiana direnentzako, Elizak bitan banatzea eskatzen dielako. Oraingoan, Elizak berak daramatza gurutzera "ezberdinak" izategatik.

Azkenean erreforma gauzatzen bada, horrekin bakarrik ez dira gaintutako lesbiana, homosexual, transexual, eta abarrek jasaten dituzten bazterketa egoera guztiak. Ezkontza eta haurrak edukitzea aukera bat da, baita lesbiana eta homosexualen kasuan ere. Baina eskubide hori gauza ahal izatea lorpen bat da, eta balio sinboliko handikoa, sexu berekoen harremanak bistaratzea eta normalizatzea dakarrelako. Eta, gainera, pertsona askorentzat, zoriontsuago bizitzeko aukera bat da.

Parekotasun honekin denok irabazten dugu, jokoan daudenak ez direlako kolektibo hauen eskubideak soilik, gizarte eredu dagoelako jokoan, bere kalitate demokratikoa eta etikoa, besteengana begirunea, aniztasunaren defentsa, pluraltasunarena eta erlijioek gizarte zibil eta akonfesional baten izan behar duten lekua.

PILAR ETXANIZ (ZUTIK)
Debagoiena

Noingo gudua
(1521-2005)

El 30 junio 1521 se libra la batalla de Noaín (Navarra) en la que fueron derrotadas las tropas francesas invasoras de dicha región española".

Hau da historia espainiarrak esaten diguna. Baina euskaldunok jasotakoak agian hau ere esan liezaguko:

Fernando II.ak, Katolikoa ere deitua (beste batzuentzat Faltsarioak), 1512ko uztailaren 21ean Nafarroa inbaditu zuen. Irailerako ia Nafarroa osoa okupatua zuen, baina gerrak 12 urte luze iraun zuen (1512-1524). Usurpazio honen ondoren, Nafarroa birkonkistatzeko hainbat eraso burutu zituen Labriteko Joan III.a errege legitimoak. Haren seme Enrike II.ak Nafarroa Birkonkistatzeko Armada sortu zuen nafar euskaldun eta gaskoiez osatua. Armada haren gudariak euskara eta erromantze baskoiak (erromantze nafarra eta gaskoiera) zituzten ahoan. Frantsesa ez, ezta gaztelania ere. 1521ean, Behe Nafarroan sartu eta Donibane Garazi hiriburua aske geratu zen. Nafarroa Garaiko indarrak jarri ziren Enrike II.a errege legitimoaren alde eta Erronkarikoak izan ziren lehenak independentziaren alde matxinatzen. Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxako jauntxoak, Loiolako Inazio Oñaztarra tartean, Gaztelaren alde mobilizatu egin ziren. Espainiak eskaintzen zizkien prebenda

feudalak ez zituzten Nafarroan aurkitzen eta. Horregatik, bada, hiru mende lehenago ere Lopez de Haro zaldun nafarrak eta enparauek nahiago izan zituzten Gaztelak eskaintzen zizkien eskubide feudal eta hereditarioak Nafar Erresumak ematen zizkien behin-behineko zerbitzu karriak baino. Han zeuden Leringo Kondea eta beste traidore nafar batzuekin batera Gebaratarrak, Lazkaokoak, Aitziondo, Abendañotarrak. Betikoak, beti bezala. Handik mende batzuetara jauntxo nafarrek Erreketea Euskadiren aurka mobilizatu zuten bezala.

Loiolako Inazio hanka batean larri zauritu zuten Iruñea espainiarren alde defendatzen. Alferrik, Iruñeko herria altxatu egin zen okupatzaileen aurka eta armarrak espainiarra lokatz artean arrastaka erabili zuen. Oliteko Merindadea eta Tuterako Merindadea matxinatu egin ziren. Lizarratarrek ere gaztelarren gotorlekuari eraso eta honek kapitulatu egin zuen. Armada Nafarrak Europan gertatzen zen Euskal Estatu Subiranoaren azken hondarra askatu zuen, Pirinioetatik Ebroraino. Hala ere, Logroñora ekin zioten hurrena, baina han etsaien armada hiru bider handiago zen. Atzera jo behar izan zuten tropa espainiarrek gertu-gertutik jazartzen zituztela. Hainbat oker taktikoren ondoren, gaztelarrei aurre egitea erabaki zuten Noainen, 1521eko ekainaren 30ean. Inguratuta geratu ziren eta 5.000 gudari nafarrek bizitza eman zuten euskaldunok izan dugun estatu subiranoak bizirik iraun zezan. Errepresioa biderkatu egin zen: exekuzioak, erbesteratzeak, kartzela. Iruinxeme-alabek lohitu zuten armarrak espainiarra harresietako Zumalakarregi Atarrian segitzen du harrezkerok.

Historia zaharkitua deituko dio zenbaitek. Baina nazioentzat historia da oroimena pertsonentzat dena. Oroimena galdu duen pertsonak askatasuna eta erabakimena galtzen duen heinean, oroimen kolektiborik gabeko gizarte politiko batek nortasuna galtzen du. Zer izan garen eta nondik gatozen ahazteak eta ez jakiteak gure auto-estimua galtzera garamatza. Ondorioz, zanpatu eta birrindu gaituenarena bihurtuko da gure erreferentzia bakarra. Menderatzailearen ikuspegia, kultura, hizkuntza, bizimodu izango da errealtate bakarra, serioa eta zientifikoa. Menderatuarena, ostera: ipuinak, tontakeriak, bazterrak nahasten ibiltzeko gogoa.

Nafarroa Osoa (Euskal Herriko egungo zazpi lurraldeak) Espainia eta Frantziako zati bihurtu zenetik etengabeko galera prozesuan amildu da. Hor daukagu gaur egun Leringo Konde traidorearen ondorengo lana inoiz existitu ez den Nafarroa bat asmatzen. Espainiaren ohorez eta euren poltsikoan faborez. Joan eta esplikatu euskara izan dela Nafarroa osoan historian zehar hitz egin den berezko hizkuntza. Joan eta esplikatu XIX. mendean Artaxoan udal idazkari euskalduna eskatzen zutela eta Oliteko

Merindadean euskara ez zela batere arrotz. Edota Tuteran gaur egun hain euskalduntzat jotzen ditugun hainbat herritan baino euskara gehiago entzun zitekeela eta, horregatik, Zamorako albaitari batek bere lana betetzeko arazoak izan zituela. Memoria kolektiboa deuseztatu dute, euskaraz errotulatzeko bera ere anakroniko eta burubero batzuen kasketa bihurtu arte.

Datorren domekan, ekainak 26, 12:30ean Noingo Getzen nafarron bandera gorriaren eta Ikurrinaren gerizpean urtero bezala elkartuko gara Nafarroa Osoko Euskal Estatu Subiranoaren oroimenari eusten saiatzeko eta Euskal Herriaren geroari ekiteko. Zatozte.

RAFA SANCHEZ MUXIKA 'NAPARRA'
Bergara

Gurekin jai duzue!

Berriki, Espainiako Auzitegi Nazionalak, salbuespen auzitegiak, Jarraila-Haika-Segi auziaren inguruan emandako epaiak zapore gazi-gozoa utzi digu euskal gazteriari. Gozoa, Garzonen tesia, dena da ETA, bertan behera gelditu delako. Eta horrek hurrengo epaketetan, 18/98+..., aurrekari gisa izan dezakeen eraginagatik. Eta bestetik gazia, salbuespen auzitegi honek emandako epai politikoak euskal gazteriak aurrera darman borrokari zilegitasuna kendu nahi izan diolako.

Horren harira, jakin dezatela Espainiako sasi epaileek gurekin jai dutela. Gazteriak Euskal Herriaren eskubideen defentsan borrokan irmo jarraituko baitu, zilegitasun osoz. Ez legez kanporatzeek, ez atxiloketek, ez eta sasi epailetan ez baidakaitzute geldituko. Salbuespen epaitegia ez baita inor euskal gazteria epaitzeko. Are gutxiago, gazteriak antolatzeak, pentsatzeak, elkartzeak eta borrokatzeak dugun zilegitasun guztiaz, epai politiko bat ezartzeko.

Esan beharra dago, nahiz eta auziperatuek espetxera itzuli beharrik ez duten, aurretik batzuek 3 eta 4 urte bitarte Espainiako espetxeetan igaro dituztela. Auzipetuek erakutsi duten duintasunagatik eta euskal gazteriak emandako erantzunari esker, Euskal Herriak Auzitegi Nazionala bera epaitzea lortu du.

Amaitzeko, gogorazi nahi genuke legez kanporatzeak eta errepresioak bere horretan dirautela Euskal Herriak gatazka gaintzeko borondate argia adierazi duenean. Halere, demokrazian eta bakean oinarritutako etorkizun baten alde lanean jarraituko du Segik, Euskal Herriaren aitortza eta bere hitzaren errespetuaren alde. Beraz, euskal gazteria ta segi aurrera!

ARETXABALETAKO SEGI
Aretxabaleta

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitate)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



zorionak !

Elkarrizketa

Kirolabur

Bixen Calzon | REALAK DEBAGOIENEAN DUEN ARDURADUNA |

XABIER URTZELAI

Aretxabetako kiroldegian egiten du lan Bixenek, eta Goiena Sport enpresa sortu berri du, besteak beste, kirol jarduerak kudeatzeko. Horrekin batera, baina, oraingo ikasturtean hasi da Realarendako lanean. Hura da talde txuri-urdinaren duen arduraduna.

Zein da zehazki egiten duzun lana?

Esan daiteke Realarendako begirale lanak egiten ditudala, eta badirudi izen horrekin arrantzarako kanabera hartu eta jokalariek gazteak arrantzatzen ibiltzen naitzela. Hori, baina, ez da horrela. Kirol Eskolakoekin harreman zuzena izaten ahalegintzen naiz, eta gazteen jarraipena egiten, baina inor zorabiatu barik.

Eta ibarrean badago Realarendako moduko harrobirik?

Bai. Bistan da gazte askok kirolerako gaitasunak dituztela, eta futbolearen egiten abilak direla. Baina Realak argi dauka gauza bakoitza bere momentuan egin behar dela, eta Eskola Kirolean dabiltzanek lasai egin behar dituztela euren jarduerak. Ezin gara hasi da gazte-gazte direnetik astean hirutan Zubietara eramaten. Kalte baino ez genieke egingo.

Adin horrekin, euren lagunekin egon behar dute, eta ondo dago kirol bat baino gehiago praktikatzea. Beste guztiarendako, egongo da denbora.

Alde horretatik, Athleticek abantaila dauka.



XABIER URTZELAI

"Futbola eskatzen du jendeak, baina gazteak ez dira horrekin itsutu behar".

"Realak argi dauka gauza bakoitza bere momentuan egin behar dela; ezin ditugu gaztetxoak astean hirutan Zubietara eramán"

Kontua da Bizkaian Gipuzkoan baino kategoría bat lehenago has daitezkeela lehiari, eta Athletic horretaz baliatzen da. Hemen go hainbat gaztetxo hartu dituzte, gozokia erakutsita. Alde horre-

tatik, gurasoek zeresan handia daukate. Gainera, futbolearen lehenago hasteagatik ez dute zertan abantaila izan. Infantil eta kade- te mailetak norgehiagoka askotan, Real Athletic baino gehiago

izan da. Horrek esan gura du lehenago hasteak ez daukala zerikusirik.

Eskola Kirolean multikirolaren alde egiten dute.

Eta ondo ikusten dut hori. Aurten, gaztetxoek taldeak Zubietara eramán ditugu, baina ez futbolearen egitera bakarrik. Gainera, gerta daiteke gazte-gaztetatik futbolearen hasiz gero gazte mailako azken urtea egin eta ordurako 11 urte ibiltzea futbolearen. Jokalaria nekatu egin daiteke.

Joan den astean amaitu zenuten Leintz Eskola Kirolekoekin batera egindako 8nako futbol txapelketa. Zer moduz?

Lehenengo aldia da horrelako bat egiten duguna, eta gustura geratu gara. Jendeak futbola eskatzen du, eta eskari hori apur bat ase guran antolatuta genuen txapelketa. Talde eta erakunde asko elkartu gara txapelketa hori egin ahal izateko, eta hori ere positiboa da. Noski, datorren urteari begira badugu zer hobetu.

Alde horretatik, saririk eman ez zenuela-eta, batzuk haserretu egin ziren.

Guk inoiz ez dugu esan irabazleendako sariak egongo zirenik. Realak hainbat opari eman- go ditu, taldeen artean zozketa egiteko. Bestalde, txapelketa polita antolatu dugu, eta guztia izan da debalde. Baina ez da horregatik bakarrik. Uste dugu, adin horietan parte hartzea eta ondo pasatzea dela saria, irabazleak bereiztu barik; gaztetxoendako hori nahikoa izaten da. Bistan da beste batzuek ez dela nahikoa.

ARRASATE/ZESTA-PUNTA

Zapatuan egingo dute, San Juan jaiekin batera, Euskadiko Zesta 36 profesional mailako txapelketarako jardunaldia, Uarkapen.

Zesta-punta jaialdian norgehiagoka bakarrik izango da; ikusgarria, baina. Egongo diren lau jokalariek hiruk badakite Miami pilotalekuan jokatzeko zer den. Haimarrek eta Santik Meabe eta Etxaniz izango dituzte aurrean. Jaialdia 22:00etan hasiko dute. Sarrerak, aurrez hartuz gero, 3 euro. Bestela, 5 euro.

BERGARA/ESKUBALOAIA

Joan den egubakoitzean egin zituzten Anoetan, Gipuzkoako eskubaloiko sari banaketak.

Besteak beste, denboraldian zehar Gipuzkoako txapelketetan nabarmendu diren jokariak saritu zituzten. Eta, erretratatu dagoen Bergarako taldeko Marina Madariagak hartu zuen sarietako bat, gazte mailako nesketako golegile izan da-eta.



GOIENKARIA

Marina Madariaga saria jasotzen.

"Uztailean Murtziara noa, Espainiako Txapelketara"

X.U.

Denboraldi biribila egiten dabil Gurutz Larrea. Gipuzkoako txapeladuna, joan den astean Euskadikoa, berak ere ez zuen espero: "Lesakako probaren aurretik, entrenatzailearekin saio bat egin nuen, eta esan zidan indartsu nengoela. Gustura nenguen entrenatzen, eta espero nuen aurrean ibiltzea. Hori bai, ez nuen uste lasterketa irabaziko nuenik". Esprintean erabaki zuten lasterketa: "Azkeneko portuan sei lagunek egin genuen aurrera, eta Lesakako kale estuetan bihurtu azkar hartuta, ondo irabazi nuen esprinta".

Antzuolakoarendako denboraldia ez da amaitu, gaur hasiko dute-eta Gipuzkoako Itzulia: "Legorretan hasiko da proba hori, erlojupekoa egingo dugu. Eta datorren egunotan izango gara Olaberriari, Andoainari eta Zumaian. Hori ez da egun bateko lasterketa izango, eta ondo errekupeatzea izango da garrantzitsua".

Euskadiko txapeladun izan berri, dagoeneko jaso du Espai-



GOIENKARIA

Legorretako erlojupekoan izango da gaur Gurutz Larrea.

niako Txapelketarako gonbita: "Uztailaren 22an Murtzian izango naiz. Sekulako beroa egingo du han, baina hemen ere zapatuan bero egin zuen, hortaz...". Datorren urtean egingo du Guru-

tzek amateur mailara jauzia: "Orduan ikusiko dut zelako panorama dagoen, eta ikusten dudaren arabera erabakiko dut zer egin; alde horretatik, lasai nago".

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACION

hezkuntza alorra 2005-2006
graduatu ondoko ikasketak eta prestakuntza iraunkorra

- Informazio eta Komunikaziorako Teknologia Formazioan. Aditua eta Masterra (*).
- Hizkuntzen Kudeaketa. Aditua (*).
- Kulturartekotasuna Euskal Herrian. Aditua eta Masterra (*).
- Prestakuntza Pedagogikoa (*)
(beharrezko titulua DBHn, batxilerrean eta ziklo formatiboetan klaseak emateko).

(*) Eusko Jaurilaritzak homologatuak, 2004.07.21 Ebazpena (EHAO 2005.04.18).

gradu ikasketak (lanean ari direnentzat)

- Irakasle Ikasketak – 6 espezialitate goizez edo arratsaldean.
- Psikopedagogian Lizentziatura – On line eta erdi-presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan.

Ibilbideak: Hizkuntzen Psikopedagogia.
Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Amaitu ondoren, aukera izango da habilitazio ikastaroak egiteko Pedagogia Terapeutikoan, eta Entzumen eta Mintzairan. – Eusko Jaurilaritzak homologatua 2004.07.21 Ebazpena.

Inskripzio epea: uztailearen 8 arte
Matrikula epea: uztailearen 11tik 15era.

Dorleta z/g • 20540 ESKORIATZA
tel. 943 71 41 57
sarrera@huhezi.edu

www.mondragon.edu

Udako preziorik ONENAK

ORAIN!!!

ABUZTUABARNE

BALEARRAK

8 egun / 7 gau

		UZI.	ABUZ.	IRAILA
MALLORCA				
SAGA H. **	ME	292	310	259
BAHAMAS H. ***	ME	365	463	333
BELLEVUE APTU. ^{3U} (Pto. Alcudia)	OB	365	410	335
DELTA H. ****	ME	381	479	357
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	414	520	496
RIU CAMP DE MAR H. ****	GB	544	821	601
MENORCA				
CONFORTEL SOL PARC APTU. ^{2U} occ. 3 pers.	OB	325	368	279
ACORN ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG	470	598	455
EIVISSA				
PISCIS PARK H. **	ME	384	374	303
FIESTA DON TONI H. ***	ME	527	551	387

KANARIAK

8 egun / 7 gau

		UZI.	ABUZ.	IRAILA
TENERIFE - Puerto de la cruz				
VALLE LUZ APTU. ^{2U}	HG	285	305	250
PANORÁMICA GARDEN APTH. ***	ME	325	325	290
BONANZA PALACE H. ****	ME	425	500	375
SEMIRAMIS H. ****	ME	458	525	456
TENERIFE HEGOALDEA				
FIESTA OASIS PARAÍSO H. ***	ME	365	392	350
SOL PRINCESA DÁCIL H. ***	ME	414	514	372
IBEROSTAR LAS DALIAS H. ****	ME	448	501	518
LANZAROTE				
LAS GAVIOTAS APTU. ^{2U} occ. 3 pers.	OB	330	321	298
HG GUACIMETA APTU. ^{2U} occ. 3 pers.	OB	341	348	304
BEATRIZ COSTA TEGUISE H. ****	ME	470	687	580
IBEROSTAR COSTA CALERO H. ****	ME	610	642	512
KANARIA HANDIA				
GREEN OASIS BEACH FLOR APTU. ^{1U} occ. 3 pers.	OB	306	320	275
BUENAVENTURA H. ***	ME	442	499	454
GLORIA PALACE AMADORES H. ****	HG	450	512	429
FUERTEVENTURA				
LA PIRÁMIDE APTU. ^{2U} occ. 3 pers.	OB	340	342	333
CASTILLO DE ELBA H. ***	OB	368	383	361
LA PALMA				
LAGO AZUL APTU. ^{2U} occ. 3 pers.	OB	297	331	301
SOL LA PALMA APTU. ^{3U} occ. 3 pers.	OB	398	425	391

Irteerak Bilbotik, Karibera izan ezik; horiek Madrildik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean, kontraktorik esaten ez bada eta aurretik aipatutako erregimenean. Aurretik aipatutako irteera konkretuentzat bakarrik, galdetu irteera egunez. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostalua Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta gosaria; GB: Guztia Barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Irteerak
BILBOTIK

450 bulego baino gehiago zure zerbitzura.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

KARIBEA

9 egun / 7 gau

DOMINIKAR ERREPUBLIKA

		UZI.	ABUZ.	IRAILA
PUNTA CANA				
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****	GB	670	881	815
RIU MELAO H. ****	GB	739	913	887
IBEROSTAR DOMINICANA H. ^{WJO}	GB	750	933	887
CATALONIA BÁVARO BEACH H. ****	GB	750	979	967

PUERTO PLATA

RIU MAMBO H. ****	GB	790	892	820
-------------------	----	-----	-----	-----

MEXIKO

MAIA ERIBERA

CLUB MAEVA H. ****	GB	799	1043	925
RIU LUPITA H. ****	GB	925	950	950
RIU TEQUILA H. ****	GB	925	1139	1050

KUBA

HABANA

GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	696	893	858
GRAN CARIBE HABANA RIVIERA H. ****	HG	742	893	858
TRYP HABANA LIBRE H. ****	HG	798	999	964

VARADERO

PUNTA ARENA H. **	GB	801	985	950
MELIÁ VARADERO H. ****	GB	990	1213	1178
SOL PALMERAS H. ****	GB	1029	1115	1080

HABANA / VARADERO

HABANA LIBRE / SOL PALMERAS H. ****/****	HG/GB	830	1076	1041
GC PLAZA / PUNTA ARENA H. ****/***	HG/GB	839	956	921
NACIONAL / ARENAS BLANCAS H. ****/****	HG/GB	923	1093	1058

EUROPA

8 egun / 7 gau

ETA AFRIKA IPARRALDEA

ISTANBUL

		Uztaila	Abuztua
Birbey H. ***	HG	371	371
Feronya H. ****	HG	428	427

MALTA

Alexandra Palace H. ***	HG	336	446
Corinthia Jerma Palace H. ****	HG	457	536

BUDAPEST

Venture H. ****	HG	449	479
Hungaria Grand H. ****	HG	559	632

TUNISIA

Marina Palace H. ****	ME	383	374
Meliá Mouradi Hammamet H. ****	HG	418	508

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

902 108 108

viajesiberia.com



Añai erretegia

- Eskaintza** **Iardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

- Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE**
943 79 85 33
- Txinatar jatetxea**
- Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
 - Aparkaleku ezin hobea
 - Janaria etxera eramaten dizugu
- Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

- Eskaintza** **Arane Erreka 30 / BERGARA**
943 76 97 01
- Eguneko menua
 - Karta
 - Plater konbinatuak
 - Ogitartekoak
- Berezitasunak**
- Behi txuleta
 - Bakailaua
- Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

- LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Eskaintza**
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa / ARRASATE/ 943 79 22 15**
www.larrinetxe.com
- Karta
 - Enkarguz menu bereziak
 - Plater konbinatuak eta ogitartekoak.
- Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
 - Bildotsa erreta
 - Etxeko postreak
- Martitzenetan itxita



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko ekainaren 24a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren 24tik
uztailaren 1era

Liburuak udarako ere badira

IRAKURTZEA GUSTUKO DUTENEGIN PENTSATUTA, **BIBLIOPORRAK 2005 GIDA** EGIN DUTE LIBURUTEGIEK. UDARAKO HAMAR LIBURU ETA IKUS-ENTZUNEZKO BAT DAGO HOR GOMENDATUTA ADIN BAKOITZERAKO. DOKUMENTUOK UDAL LIBURUTEGIETAN DAUDE

0-5 URTE

- **Bainatzeko ordua**
Jeanne Ashbé / Ttarttalo
- **El África de Zigomar**
Philippe Corentin / Corimbo
- **Maisy va a la biblioteca**
Lucy Cousins / Serres
- **Rakel beldur da**
Agustín Fernández Paz / Erein
- **La mora**
Anxos Garabana / Kalandraka
- **Xabi ilea moztera**
Olof Landström / Hiria
- **Sagu txiki**
Olga Lecaye / Ttarttalo
- **El zapatero y los duendes**
Eva Mejuto / Kalandraka
- **Martin Zikin**
David Roberts / Alberdania
- **Ahizpa txiki bat nahi dut!**
Tony Ross / Hiria
- **Katalin eta nebatxo**
Liesbet Slegers / Ibaizabal
- **Doktor Do Re Mi eta benedizebra (CD)**
Oskorri

6-8 URTE

- **Ahulerio**
Pello Añorga / Elkar
- **Edur bidaian**
Hans de Beer / Alberdania
- **El caballo mágico de Han Gan**
Jiang Hong Chen / Corimbo
- **El solterón y la alubia**
Shelley Fowles / Serres
- **Jonasek arazo potolo bat du**
Juan Kruz Igerabide / Aizkorri
- **Frederick**
Leo Lionni / Kalandraka
- **Yo soy el más alto**
Paul Maar / Juventud
- **Carlota y los bañistas**
James Mayhew / Serres
- **El regalo del sol**
Dianne Stewart / Ekaré
- **Ez naiz ilehoria**
Kirmen Uribe / Elkar
- **Unibertsolariak munduaren ertzaren bila (DVD)**

9-13 URTE

- **Xola eta Angelito**
Bernardo Atxaga / Erein
- **El taller de las mariposas**
Gioconda Belli / Barbara Fiore
- **El gran libro del miedo**
Parramón
- **Piraten eskola**
Agustín Fernández Paz / Giltza
- **Haurrentzako euskal poesiaren antologia**
Zubia
- **Haginak eta hilobiak**
Mariasun Landa / Erein
- **El arca y yo**
Vicente Muñoz Puelles / Anaya
- **El Quijote contado a los niños**
Rosa Navarro Durán / Edebé
- **Gulliver: viaje a Lilibut**
Jonathan Swift / Juventud
- **La historia de Erika**
Ruth Vander Zee / Kalandraka
- **Pinocho 3000 (DVD)**

GAZTEAK

- **Las lágrimas del asesino**
Anne-Laure Bondoux / Edelvives
- **Buscadores de tesoros**
Juventud
- **Esne katilu batean ezkutatu zen neska**
Javi Cillero / Aizkorri
- **Cruz del Sur**
Luis Durán / Astiberri
- **Anne Franken egunkaria**
Anne Frank / Erein
- **Komunista.com**
Joan Mari Irigoien / Elkar
- **Bidaia munduaren amaierara**
Henning Mankell / Erein
- **Corre, chico, corre**
Uri Orlev / Alfaguara
- **Zubi hautsia**
Philip Pullman / Erein
- **Cuentos de verano**
Grégoire Solotareff / Anaya
- **Sortuz, grabitatearen aurka (CD)**
- **Disko infernu (CD)**
Gatibu / Oihuka

HELDUAK

- **Mende berrirako ipuinak: antologia**
Erein
- **Antologia apetatsua**
Julio Cortázar / Txalaparta
- **Grandes miradas**
Alonso Cueto / Anagrama
- **El país de los cuentacuentos**
Dario Fo / Seix Barral
- **Gure etxeko kontuak**
Natalia Ginzburg / Igela
- **Wilkoko andereñoak**
Jaroslaw Iwaskiewicz / Alberdania
- **Shutter island**
Dennis Lehane / RBA
- **La montaña mágica**
Thomas Mann / Edhasa
- **Elektrika**
Xabier Montoia / Susa
- **Reconstrucción**
Antonio Orejudo / Tusquets
- **Píldoras azules**
Frederik Peeters / Astiberri
- **El vano ayer**
Isaac Rosa / Seix Barral
- **Gracias por no leer**
Dubravka Ugrešić / La Fábrica
- **La casa de vapor**
Jules Verne / Ediciones del Viento
- **Bombón, el perro (DVD)**
- **Los espigadores y la espigadora (DVD)**

IRAKURTZEA/ BIBLIOPORRAK, UDAKO IRAKURKETA GIDA, ASTEON PLAZARATU DUTE

Umeak dira udako irakurle finenak

UDAL LIBURUTEGIEK 60 GOMENDIOTIK GORA BATZEN DITUEN ESKU-ORRIA ATERA BERRI DUTE; UMEAK DIRA ERABILTZAILE HANDIENAK

LEIRE KORTABARRIA

Joan den asteaz geroztik, udal liburutegietan Biblioporrak esku-orria har dezakegu, eta ikastetxeetan ere banatu dute. Udal liburutegiek irakurtzeko zaletasuna indartzeko egiten dute esku-orri hori, eta baita dagoeneko zaleak direnei udako oporretarako ideiak emateko ere.

Haritz eta Martin anaiek 6 eta 8 urte dituzte. Joan den astean jaso zuten ikastetxean Biblioporrak gida. Liburutegira sarri joaten dira, irakurtzea gustuko dute, eta, beharbada, datorren egunean gida horretan agertutako liburu edo filmen bat eramango dute etxean disfrutatzeko.

Bi anaia horien kasua Debagoieneko beste eskola-umeen bera da. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Oñati eta Aramaioko udal liburutegiek, opor sasoi guztietan bezala, Biblioporrak gida prestatu dute, eta ikastetxe guztietan banatu dute. Horrez gain, liburutegietan bertan ere hartzeko dago. Umeak dira, izan ere, kanpaina horren erabiltzaile nagusiak, eta eurak dira gehien irakurtzen duen adin multzoa. Ibarreko liburuzain guztiak bat datoz hori esaten. “7-12 urte bitartekoek jarraitzen dituzte gehien gidako gomendioak, eta euren gurasoek ere liburu horiek eskatzen dizkigute”, dio Iñaki Agirianok, Eskoriatzako liburuzainak. Umen artean arrakasta handia du, hortaz, esku-orri horrek, eta aurren ere hala izango delakoan dau-



LEIRE KORTABARRIA

Liburutegi batzuek aire zabalean irakurtzeko lekua dute: irakurle gaztetxo horiek Oñatiko liburutegiko terrazan daude.

de. “Gainera, gidan datozen liburu eta ikus-entzunezko guztiak atera berriak dira, eta jendea horien bila etortzen da”, azaltzen du Arrasateko Udal Liburutegiko arduradunetako batek, Asun Agirianok.

Gutxien jarraitzen duen adin multzoa nerabeak dira, 12-14 urte bitartekoek, hain zuzen ere. “Horiek dira erakartzeko zailenak”, dioskute Oñatiko liburutegian.

HELDUEK, EUREN IRIZPIDEA

Heldu gehienek ez dute Biblioporrak kanpainaren berri izaten, gurasoak ez badira. Hala, zabal-kunde berezia emango diote gidari: Arrasateko liburutegian, apal berezi baten ipini dituzte gomendatutako liburuak eta esku-orri batzuk; Aramaion, herriko jaietako egitarauarekin batera banatuko dute.

Normalean, helduek euren kasa aukeratzeko dituzte irakur-

tzeko edo ikustekoak: hala, gehiago jotzen dute liburutegietako berritasunen apalera, edo gustuko egileen bila joaten dira.

Beste alde bat da hizkuntza: ume eta gazteek batik bat euskaraz irakurtzen dute, eta helduek, gaztelaniaz. Hala ere, Aramaio-ko liburuzainak, Olga Jauregik, dioenez, “helduen artean, gazte-agoak gero eta gehiago animatzen dira euskaraz irakurtzera; pixkana, baina joera aldatzen doa”.

Filmak eta diskoak

Uda honetako Biblioporrak gidaren berritasuna da udako denboraldian lehenengo aldiz gomendatzen direla, liburuaz gain, ikus-entzunezkoak. Horrez gain, esku-orriak ohiko egitura du: bost adin multzo bereizten ditu -0-5 urte, 6-8 urte, 9 urtetik aurrera, 12-16 urte ingurukoak eta helduak- eta bakoitzean 10-15 bat gomendio daude, tartean film edo disko bat edo bi adin multzo bakoitzeko.

Barietatea da nagusi: euskarazko eta gaztelaniazko liburuak daude, Euskal Herriko eta kanpoko egileak; debagoiendar bat ere badago, Luis Duran oñatiarra eta *Cruz del Sur* bere komikia. Liburuzainak argitalpenen kritiketan, sariatzen eta euren irakurketan oinarritzen dira gomendioak egiteko. Aurren, gainera, gertakizun esanguratsu batzuk hartu dituzte aintzat: hala, Holokaustoren mende erdia bete den honetan, gai horren gaineko bi liburu daude zerrendan. *On Kixote* liburuak argitaratu zeneko bosgarren mendeurrenaren harira ere badago gomendio bat, eta beste bat Jules Verne-aren jaiotzaren mendeurrena gogoratzu.

Zeintzuk dira zure irakurketa ohiturak?



Maialen eta Sara

14 URTE

Bi lagun horiek ez zuten Biblioporrak kanpainaren berri; hala ere, beharbada begiratuko dute esku-orria; izan ere, “oporretan joaten garenean inoiz eramaten dugu libururen bat”, diote. Liburuak baino gehiago, ikus-entzunezkoak gustatzen zaizkie, ordea, eta udan DVD gehiago mailegatzeko dituztela diote.



Hector

35 URTE

Ez dut Biblioporrak ezagutzen, baina irakurketa sustatzea ondo ikusten dut”, diosku. Udan gehiago irakurtzen du Hectorrek.



Pili eta Ana

39 URTE / 3 URTE

Pili eta Ana ama-alabei gustatzen zaie irakurtzea, eta liburutegira joaten dira, baina, Pili dioskunez, “neguan gehiago irakurtzen dugu; gure umeak udan kalean ibiltzen dira gehiago”. Umeek 8 eta 3 urte dituzte, eta Pili eurekin ere irakurtzen ditu ipuinak. Berak gaztelaniaz irakurtzen du; umeek, euskaraz ere bai.



Haritz eta Martin

6 URTE / 8 URTE

Aitarekin zein ikastetxetik edo bakarrik joaten dira liburutegira bi anaia horiek. Biblioporrak esku-orria jasotzen dute normalean, baina euren ikusten dutenaren arabera edo aitarekin batera aukeratzeko dute zer irakurri, gidan datorrena eskatu baino. Liburutegiko software didaktikoa ere gustuko dutela dioskute.

San Juanak Arrasaten

EGUBAKOITZA, 24

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA. Ferrerías kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da. Gero, zaleendako bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailea Parrokian, MEZA NAGUSIA.

11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

11:15 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN kalejira.

12:00 Herriko Plazan ohorezko aurrekua eta San Juan zortzikoa dantzatzeko dituzte.

12:30 Abaroan 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI OMENALDIA EGITEA.

13:00 Monterron Parkean KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.

Egitaraua:

El Caserio / J.Guridi

Amaya / J.Guridi

Charleston Forever / M.Peeters

Maite / P.Sorozabal

Star Trek / Goldsmith, Mac Carthy

Disney Fantasy / N.Iwai

Gora Arrasate / Juan Artzamendi

San Juan Ereserkia / J. Artzamendik moldatua

19:00 Kalejira ARRASATEKO GAITARIEKIN.

19:30 Zezen-plazan Errekortadoreen Erakustaldia, Incansables Txarangak girotuta.

20:00 Txosna-gunean BERTSOLARIAK eta sagardo dastatzea.

21:00 Herriko Plazan DRAGOI JANA. Bertan erretako dragoia dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa, 12 euro. Antolatzaileak: AED eta AEK.

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Pirotecnia Astondoaren eskutik.

23:30 Herriko Plazan ERROMERIA, Kardantxa 4.0 taldearekin.

23:30 Monterron parkean, *KLONK hip-hop dance IKUSKIZUNA*, Addictos breakdance & Logela multimediararen eskutik.

01:00 Txosna-gunean KONTZERTUA: INOREN ERO NI eta ANGER taldeekin.



ZAPATUA, 25

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN

09:00 ENTZIERROA: Ferrerías-Erdiko kalea-Iturbide-Laubide



Elliot Murphy kantari amerikarrak folk-rock dotorea eskainiko digu zapatuan.

plaza. Gero, bigantxak, zezen-plazan.

10:00 Umeak esnatzeko DIANA izango da.

11:45-12:00 Seber Altubetik pasatzen diren umei borlak, marakak eta banderatoak banatuko zaizkie Eguzki Laruri ongietorria egiteko.

12:00 EGUZKI LARURI ongietorria Zaldibarren; gero jolasparkea zabalduko dute, 14:15ak arte.

12:30 Arrasateko Trikitilariekin KALEJIRA.

13:00 Herriko kaleetan zehar TRIKIPOTEA

16:30-18:30 Zaldibarren Eguzki Laruren JOLASPARKEA irekiko dute berriro.

18:30 Zaldibarren POTXIN ETA PATXIN *Herri Tropikala* ikuskizunarekin.

18:00 Zaldibarren ZIRKU KALEJIRA Sebastopoleko Titiriteroekin.

19:00 Txosnetan AEROBITOIA.

20:00 Herriko kaleetan KALE ANTZERKIA Trapu Zaharra taldearekin: *El*

pisito. **22:00** Uarkapen Zesta Punta jaialdia.

22:30 Herriko Plazan DANTZALDIA Tarantella Orkestrarekin.

22:30 Monterron Parkean, KONTZERTUA Elliot Murphyrekin.

01:00 Txosna-gunean

KONTZERTUA PASAJEROS taldearekin.

DOMEKA, 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.

09:00 ENTZIERROA.

Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, bigantxak.

11:00 ERRALDOIEN KONTZENTRAZIOAREN hasiera. Erraldoien

kalejira Zaldibarren hasiko dute. Konpartaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldia.

13:00 Herriko Plazan ERRALDOIEN KONTZENTRAZIOA.

14:30 Zaldibarren HERRI BAZKARIA.

18:00 Herriko Plazan Haur Antzerkia. Panta Rhei Taldea: *Txaribari* ikuskizuna eskainiko dute.

18:00 Zaldibarren, ARKU TIROKETA LEHIAKETA. Arku tiroketa praktikatzeko aukera ere izango da.

19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.

20:00 Herriko Plazan TRIO CHAMUYOren emanaldia.

Tangoak eta milongak, dantzariekin.

20:30 Txosna-gunean ANTZERKIA. *Ez haiekin... ezta haiek gabe ere* ikuskizuna Jon Urrazaren eskutik.



San Pedroak Eskoriatzan

EGUBAKOITZA 24

17:00: IBARRAUNDI museoaren inaugurazioa.

MARTITZENA 28

18:30: Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA Herriko Plazan.

Ondoren: MUSIKA ESKOLAKO Bandaren kalejira.

19:00: BURUHAUNDI eta txistulariekin kalejira.

19:30: PARROKIAKO ABESBATZAK lau ahots mistotan H. Eslavaren *Salbea* abestuko du San Pedro elizan.

20:00: DANTZALDIA herriko plazan Egan taldearekin.

22:30: Nagusien DANBORRADA.

Ondoren: Berriro ere dantzaldia plazan Egan taldearekin.

Galartza V.a-Urberuaga/ Berraondo-Galartza VI.a Mtz. De Irujo-Eulate/ Gonzalez -Pascual

19:00: *Aterpea* KALE ANTZERKIA, Trapu Zaharra taldearekin.

20:00: JOSELU ANAIK taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

22:45: ZARAGOZANA

PIROTEKNIAREN suzko erruberak.

Kanposantutik botako dira.

23:15: *La auténtica leyenda* ikuskizuna

Kaukasoko Dantza

Konpainiarekin,

Gorosarri plazan.

24:00: JOSELU ANAIK taldea plazan.



EGUENA 30

09:00: Herriko txistulariekin kalejira.

12:00: PIRRITX ETA PORROTX pailazoak Gorosarri plazan.

12:00: Herriko hildakoen aldeko meza.

13:00: XANADU orkestrarekin eguerdiko dantzaldia herriko plazan.

16:30: XIV. MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

Izenematea: ordu erdi lehenago.

18:30: HAURREN DANBORRADA.


20:00: XANADU orkestrarekin dantzaldia Herriko Plazan.

23:00: TTAKUNPA taldea Gorosarri plazan.

TTAKUNPAK afrikar perkusioa eta txalaparta nahasten ditu, gure

sustraiak eta urruneko eritmoak nahastuz.

24:00: XANADU orkestrarekin dantzaldia plazan.



Pirritx eta Porrotx pailazoek emanaldia egingo dute egunean.

Eka. 24-Uzt. 1

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MUSIKA

ARRASATE

- **Educative Rec** jaialdia izango da gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 04:00etan. Christian (Warehouse), Loren (3.60) eta Ibai disko jartzaileek musika ipiniko dute. Sarrera doan da.
- **Adunia Folk** taldeak joko du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:00etan.
- **Yawning Man** talde estatubatuarrek kontzertua egingo du bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean. Neubat eta P.A.M. taldeek ere joko dute. 04:00etan, Ene!, Balza eta Haritz disko jartzaileen emanaldia izango da.
- **Pobre de mí** musika-gaua egingo dute etzi, domeka, 3.60 aretoan, 03:00etan. Loren eta Haitz disko jartzaileak arituko dira.

BERGARA

- **Orkestra Sinfonikoak** emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Pedro parrokian, 20:00etan.
- **Lobo Eléctrico eta La Banda del Abuelo** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.
- **Funtsak beats & frames** emanaldia izango da bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan. Txabi (Iruña), Jero (VJ) eta Alain & Kaiet (Go Jam) disko jartzaileek jardungo dute.

ELORRIO

- **Musikaire jaialdiaren barne**, honako ekintzak izango dira asteburuan: gaur, egubakoitza, Argento & Leon Bertone & Tango Aereo taldearen emanaldia, Casa Jaran, 22:30ean; bihar, zapatua, denetariko azoka, Herriko plazan, egun osoan; eta etzi, domeka, magia jaialdia, frontoian, 20:00etan.

LEHIAKETAK

DEBAGOIENA

- **Goienaren argazki lehiaketan** parte hartzeko epea zabalik dago. Udako argazkiak bidali behar dira argazkiak@goiena.com helbidera edo

Goienaren egoitza batera. Argazki kamera digitala, bi lagunendako asteburuko egonaldia Asturiasen edo Kantabrian, eta afari edo bazkari bat emango dituzte sari bezala.

- **12. CAF-Elhuyar** sariak deitu dituzte, zientzia-dibulgazioko artikuluekiko eta dibulgazio-liburu bat idazteko. Lehenengo sailean, 2.100 euro banatuko dira lau saritan; bigarrenean, liburua idazteko proiektu onenak 4.500 euroko beka jasoko du. Sarietako oinarri osoak www.elhuyar.org eta www.zientzia.net webguneetan daude. Mugaeguna da abenduaren 1a.

- **Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketan** izena emateko epea zabalik dago uztailearen 8ra bitartean, Legazpiko Udaletxera deituta (943 73 70 30 - Ainhua edo Gurutze). Lehiaketa irailaren 4an jokatu da Legazpin.

OÑATI

- **Oñatiko jaietako programaren azala** aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Oñatin jaio edo han bizi direnei dago zuzenduta. Teknika librea da, eta derrigorreko testua, hauxe: Oñatiko jaixak 2005. Lanak turismo bulegoan edo kultura etxean entregatu behar dira uztailearen 15a baino lehen, lelo edo ezizen sistema bidez. Irabazleari 250 euro emango diote, eta bigarrenari, 125.

DEIAK

ANTZUOLA

- **Gazte Txokoaren gaineko** batzarra egingo dute hilaren 28an, martitzena, Errekaldeko lokalean, 19:00etan. Gurasoendako batzarra da, eta Gazte Txokoko begiraleek eta udal arduradunek deitu dute.
- **Erretiratuen Eguna** ospatuko dute uztailearen 10ean. Bazkaria egingo dute, eta ekainaren 30ean eta uztailearen 1ean eta 2an salduko dituzte txartelak erretiratuen lokalean, 18:00-19:00 orduetartean. 3 euro da.

ARETXABALETA

- **Odol-ateratzeak** egingo dituzte astelehenean, hilak 27, osasun zentroan, 16:00-20:00 orduetartean.

BERGARA

- **Ekintza Zuzena** aldizkariak zenbaki berria aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan.

ESKORIATZA

- **Ibarraundi museoa** inauguratuko dute hilaren 27an, astelehena, 17:00etan. Bideo emanaldia, esku-orriaren eta webgunearen arukezpena eta museoan bisita egingo dituzte.

IKASTARROAK

ANTZUOLA

- **Internet ikastaroak** izango dira eguzteneko, hilak 30, KZGunean: ikastaro orokorra 16:00etan, eta *KZGuneko Foroak eta FAQ* delako mintegia 18:00etan.

ARETXABALETA

- **Hiru Internet ikastaro** emango dituzte KZGunean: *Finantza erak-ekin lan egin* ikastaroa, bi ataletan, astelehenean, hilak 27, eta martitzenean, 28, 11:00eta-

tik 13:00etara; eta posta elektronikoa erabiltzeko eguzteneko, hilak 30, 11:00etatik 13:00etara.

ARRASATE

- **Gazteendako eta emakumeendako ikastaroak** antolatatu ditu Udalak. Gazteendako, argazkigintza digitala da eskaintza bat; uztailearen 4tik 20ra izango da, astelehen eta eguztenetan, 18:00-20:00, EPAko egoitzan. Photoshop programarekin hasiera maila landuko dute. Bigarren ikastaroa da capoeira dantzarena, uztailearen 5etik 20ra, martitzen eta eguztenetan, 19:00-21:00, Monrerronen. Bi horietarako matrikula da 15 euro, 10 ikasle eta langabeendako. Azkenik, emakumeendako mendi orientazio ikastaroa dago uztailearen 5, 7 eta 9an, Emakume Txokoan. Orduetgia da 18:00-20:00. Matrikula da 6 euro arrasatearrendako, 3 euro langabeendako eta 9 euro kanpokoendako. Argibideak, 943 77 00 65 telefonoan.

DEBAGOIENA

- **Giza eskubideen gaineko** graduatu-ondoko *on-line* ikastaroa antolatuko dute Asmoz fundazioak eta Foru

Aldundiak. Batez ere, abokatuei, azken ikasturtean dauden unibertsitate ikasleei eta GKEetako kideei dago zuzenduta. 250 ordukoa da. Izenematea zabalik dago 943 21 23 69 telefonoan edo www.asmoz.org/DH webgunean.

ESKORIATZA

- **Flashjet** Interneteko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 18:00-20:00.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

- **San Juan eguna** ospatuko dute Uzarragan etzi, domeka. Meza eta dantza emanaldia izango dituzte.
- **San Martzial eguna** ospatuko dute eguzteneko, hilak 30. 18:00etan, etxafuegoak, meza, luntxa, trikitilariak, afaria eta mus txapelketa izango dira.

ARAMAIO

- **San Juan jaiak** izango dira asteburuan Aramaion. Gaur, egubakoitza,



► JAIK

KALEBARRENGO JAIK OSPATUKO DITUZTE ASTEBURUAN ANTZUOLAN

Debagoieneko zenbait herri jaietan dabil asteburuan, eta Antzuola da horietako bat. Gaurtik etzira bitartean, Kalebarren-go jaiak ospatuko dituzte han. Ospakizunak gaur, egubakoitza, hasiko dira, etxafuegoak jaurtiz eta trikiti emanaldi batekin, iluntzean. Bihar, zapatua, adin guztietarako moduko ekintzak izango dira, 11:00etatik hasita: umeendako marrazki lehiaketa eta jolasak, soinu-joleen kalejira, buruhandiak... 20:00etan, gazteek arbola jasoko dute; 21:30ean, afaria izango da, segidan Bidusound diskoteka eta, gauerdian, Sagar Dantza tradizionala. Etzi, domeka, txistularien saioa, meza eta luntxa, dantzariak eta, bukatzeko, kalejira eta antzerkia izango dira 18:30ean.

Non: Antzuolan, Kalebarrenen eta Zurrategi plazan. **Noiz:** ekainaren 24tik 26ra bitartean.

ESKAINZA
BEREZIA

Huoniao
125 cm³

- 1.800 € + matrikulazioa
- Autoaren B gidabaimenarekin, nahikoa



BERGARA

Telleria 2, Labegaraieta indust.
943 76 31 52
SALMENTA ETA KONPONKETA



COMERCIAL BRUNET

Zinema

ANTZUOLA

■ FRONTOI TXIKIA

Ez da emanaldirik egongo.

ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

Largo domingo de noviazgo
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Ekainean ez da zinema emanaldirik egongo.

ELGETA

■ ESPALOIA

El día de mañana
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

El reino de los cielos
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Batman begins
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitza eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

Madagascar
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitza: 19:30, 22:15.
Martitza, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Los sexodictos
20:00.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

Love me tender
17:30, 20:00, 22:30.

La memoria del asesino
17:30, 20:00, 22:30.

Danny the dog
17:30, 22:30.

Madagascar
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Batman begins
17:00, 19:45, 22:30.

Tercera identidad
17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Star wars, episodio 3
17:00, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:55, 22:30.

Rottweiler
17:30, 19:45, 22:45.

Madagascar
17:30, 19:45, 22:45.

Un rey en La Habana
17:30, 19:45, 22:45.

Hierro 3
17:00, 19:55, 22:30.

Batman begins
17:10, 19:45, 22:45.

La intérprete
17:20, 20:00, 22:35.

Tapas
17:00, 19:55, 22:30.

Martitza eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

A good woman
17:00, 19:45, 22:30.

Familia rodante
20:30, 22:30.

Primer
17:00, 18:45.

Héro a rayas
17:00, 18:45.

Fugitivos
17:00, 19:45, 22:30.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

Mi padre es ingeniero
17:30, 20:00, 22:30.

Exils
20:30, 22:30.

Pasos
17:30, 20:00, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Un rey en La Habana
20:10, 22:20, 00:45.

Robots
16:15, 18:15.

El reino de los cielos
16:00, 19:00.

Madagascar
16:00, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:10, 22:30, 00:45.

Héro a rayas
16:05, 18:00, 20:00, 22:00, 00:45.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Love me tender
16:10, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Danny the dog
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Million dollar baby
22:00, 00:45.

Batman begins
16:00, 19:00, 22:00, 00:50.

Hechizada
16:10, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Tapas + Bitter Kas film laburra
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Madagascar
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

La intérprete
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

El reino de los cielos
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:30.

Million dollar baby
12:15, 16:45, 19:30, 22:05, 00:40.

El internado
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

El gran golpe
20:35, 22:35, 00:35.

Batman begins
12:15, 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Héro a rayas
12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:25.

El calentito
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Kung-fu-sión
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Danny the dog
12:15, 16:00, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Star wars, episodio 3
12:15, 17:30, 20:30, 22:30.

Un rey en La Habana
12:15, 16:35, 18:35.

11:14, destino fatal
12:15, 16:55, 18:50, 20:45, 22:40, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

La intérprete
12:00, 17:15, 20:00.

Sahara
19:30, 22:00, 00:45.

Kung-fu-sión
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Héro a rayas
12:15, 16:05, 18:05, 20:00, 22:00, 00:30.

El reino de los cielos
12:00, 16:15, 19:30.

El calentito
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
12:15, 17:30.

Batman begins
12:00, 16:10, 19:10, 22:05, 01:00.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Madagascar
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

No sos vos, soy yo
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Dead end
12:00, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Reinas
22:30, 00:45.

Tercera identidad
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

20 centímetros
22:40, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

meza, luntxa, dantzaldia eta, arratsaldean, 18:00etan, mus eta briska txapelketak eta Pantarey kale-antzerkia egingo dituzte. Bihar, zapatua, 12:00etan, hildako auzotarren aldeko meza eta, 17:30ean, puzgarriak izango dira.

ARRASATE

► **Garagartza auzoko jaiak** ospatuko dituzte asteburu osoan.

BERGARA

► **San Juan auzoak** bere jai eguna ospatuko du gaur, egubakoitza.
► **San Martzial eguna** ospatuko dute eguenean, hilak 30. Santamaina parrokiatik irtengo dira 07:30ean San Martzialera bidean, Letania errezatzen. Meza entzungo dute han; bukaeran, San Joxepe elkarteak egindako txokolatea hartuko dute.

ELGETA

► **Herriko jaiak** ospatuko dituzte eguenean, hilak 30, hasi eta uztailearen 3ra bitartean. Azoka Nagusi eguna uztailearen 3an, domeka, ospatuko dute.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Emakume errefuxiatuen gaineko** erakusketa dago Monterronen hil bukaera arte, herriko zenbait Gobernu Kanpoko Erakunde antolatuta. Astegunetan dago zabalik, 18:00-20:00 ordutegian.

► **Luis Laskurain** margolari bergararren erakusketa ekain osoan dago zabalik Arregi markotzatze dendan. Joan den astean itxekoak ziren, baina arrakasta handia duela eta, zabalik utziko dute.

BERGARA

► **Emakumeen eskulanen** erakusketa dago kultura etxean, Bergarako Emakumeen Elkarteak (BEKE) eta Udalak antolatuta. Uztailearen 3ra bitartean izango duzue ikusteko aukera.
► **Eduardo Arrillaga** argazkilariaren lanak ipiniko dituzte Aroztegi aretoan uztailearen 1ean, egubakoitza. Hilaren 24ra bitartean izango da erakusketa ikusteko modua. *Sokamuturra* du izenburua bilduma horrek, eta zuri-beltzeko 34 argazki osatzen dute.

ELGETA

► **Fusilatua Gerra Zibilean** delako erakusketa ipini du Aranzadi Elkarteak Espaloia antzokian. Hil osoan egongo da zabalik.

KRITIKA

BATMAN BEGINS

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Christopher Nolan.

AKTOREAK: Christian Bale; Katie Holmes, Michael Caine.

Batman pertsonaiaren ibilaldiak zinema bukatuak zirela zirudienean, Christopher Nolan zuzendari britainiarrek komikitik sortutako pertsonaia berreskuratu du, bere bertsioa egiteko. Nolan bi aurreko filmeekin, *Memento*, eta *Insomnio*-rekin, zinemaren ezagun egin zen. Bere lanek atmosfera arduragarria eta amesgaiztoen kutsua dute, eta

agertzen diren pertsonaiak desorekatu samarrak dira eta euren buruak asaldatzeko dituen arazoren bat dute. *Memento*-ren pertsonaia nagusiak ez zituen gertatutakoaren oroimenik gordetzen, *Insomnio*-ren protagonista lorik egitea lortzen ez zuen polizia zen, eta orain *Batman Begins*-en, Bruce Wayne-rekin, antzeko zerbait gertatzen da: bere gurasoen hilketan, bere burua errudun hartzen du.

Batman Begins aurrekontu handiko ekoizpena da, Batmanen eta Gotham hiria ezagutzea irudikatzea ez da lan erraza, ezta istorioaren ezaugarri guztiak jasotzea ere. Nolan-ek Bruce Wayne-ren istorioa hasieratik kontatu nahi digu: haurtzaroa, super-heroiaien sorrera, amodio istorioa, eta hori gutxi balitz, pertsonaia pila bat agertzen diren intriga kriminal nahiko korapilatsua osatuko. Eta ezaugarri horiek guztiak egitura



ikusgarri baten barruan kokatuak izan behar dute. Gehiegi besarkatu nahi da, eta horregatik film nahasi samarra eta irudien planifikazioari dagokionez nahiko zorabiarria azaltzen da. Azpiko korapilo, pertsonaia eta datu askotxo...

eta, horrela, ez da gauza erraza biltzen den informazio guztia asimilatzea. Eta honi gehitzen badiogu ekintzako eszena filmatzeko modua: gertuko eta oso iraupen gutxiko planoak batzuetan ez dute lagatzen gertatzen ari dena ondo ikusten, nahasketaren sentsazioa sortzen zaigu.

Wayne-ren haurtzaroren irudikapena ondo dago, baita amodio istorioa, baina kartzelako eszenak eta Himalaia-ko eszenak ez dira onegiak. Dena den, *Batman Begins* film interesgarria da, nahiko istorio iluna eta apokaliptikoa kontatzen digu, eta lortzen den atmosfera erakargarria da. Ekoizpen handiek normalean gauza gutxi kontatzen badute ere, kasu honetan, agian, gehiegi kontatu nahiagatik, ez da film ederra lortzen.

ANTONIO ZABALA

Million dollar baby: ●●● | El reino de los cielos: ●● | Tapas: ●●● | La intérprete: ●●● | Reinas: ●● | Star wars, episodio 3: ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●


ZATOZ KORRIKA...SARRERAK OPARITZEN GABILTZA!

BIDALI SMS MEZU BAT 7744 -RA: ABACO _ CIUDAD HITZEKIN

¡ Sarrera ugari zozketatzen ditugu !

Mezuaren kostua: 0,90€ +BEZ. Oinarriak zinemetako lahalailan eskuragarri. Promozio baliagarria 2005/08/31-ra arte. Ez da bateragarria beste promozioekin.

www.cinesabaco.com



C.C. EL BOHIVARD
C.C. LAKUA



ABACO, ZINEMA MAILA GORENEAN

IMMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel.: Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa erdialdean 180 m².
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berritzeko.
- Erdialdea 78 m². Oso ondo.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Bolu 82 m². Garajea.
- Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 70 m². Oso ondo.
- Duplexa Bolun 90 m².
- Artekalea 60 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 80 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Txaleta 300 m². Berria.
- Osintxu 87 m². Oso ondo.

Antzuola:

- Hamaika etxebizitza berri.
- 88 m². Garajea. Oso ondo.

LOKALAK ETA GARAIEK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2
T. 943 76 21 80 F. 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T. 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:

- Erdialdea 72 m². Oso ondo. Garbara.
- Erdialdea 90 m². Berritzeko.
- Artekalea 60 m². Oso ondo.
- Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
- Duplexa, erdialdean 116 m².
- Masterreka 69 m². Oso ondo dago.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- Eldorregi 64 m². Berritzeko.
- Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Aranerrea 82 m². Garajea.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Txaleta 300 m². Berria.

ANTZUOLA:

- Bustinzuri 88 m². Berria.
- SORALUZE:
- Ezoz 83 m². Ondo dago.
- Errekalde, duplexa 97 m². Ondo.
- Sagar-Erreka 50 m². Oso ondo.

Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ANTZUOLA

JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA ALOKAGAI EDO SALGAI.
943 78 70 66
635 75 72 71

BERGARA

JARDUNEAN DAGOEN HARATEGIA SALGAI. ERRETIROA HARTZEN DUGULAKO. BAITA LOKAL MODUAN EROSTEO AUKERA ERE.
606 85 39 75

ARRASATE

KOMERTZIALAK BEHAR DIRA ARRASATE INGURURAKO. AUTOA EDUKITZEA BEHARREZKOA.
666 40 65 19

ARETXABAETA

EMAKUMEA BEHAR DA JATETKEAN ZERBITZARI JARDUTEKO.
943 71 43 45

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Txaleta salgai. 180m². Garaje bikoitza. Bost logela. 50m²-ko aterpea. Lorategia. 609 48 99 58.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

Arrasate. Guztiz berritua dagoen etxea salgai. Telefonoa: 635 73 40 57.

Arrasate. San Andres. Egongela, bi logela eta sotoa. 649 07 96 54.

Arrasate. San Andresen. 2 logela. Berritua. 665 70 85 70.

Arrasate. Zerrajerako 5. zenbakian etxebizitza salgai. 943 03 47 59 edo 680 79 77 24.

Atxondo (Bizkaia). Etxebizitza salgai. 89 m². Jantzia. Bi terraza, ganbarra eta trasteleku. Igogailua. 605 70 64 80 edo 946 82 04 99.

Bergara. Bolun 90 m²-ko duplexa salgai. 636 34 71 40.

Bergara. Bolun 90 metro koadroko duplexa salgai. Trasteleku eta garajea ditu. 636 34 71 40.

Bergara. Etxebizitza salgai Ibaran, kiroldegiaren ondoan. 58 m². Bi logela, sukaldea, bainua eta jangela-egongela. Sotoarekin. Telefonoa: 943 76 11 58.

Bergara. Masterrekan etxebizitza salgai. Erdi jantzitza eta guztiz berritua. 72 metro koadro. Teilatupea ere badauka. 607 15 26 62.

Donostia. Etxebizitza salgai Antiguan. 104 m². Egongela oso handia, bi logela. Gauez deitu, 21:30etik 22:30era. 943 37 72 92.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, bainu-gela, ganbarra eta igogailua. Aukera ezin hobea. Telefonoa: 645 71 76 25.

Elorrio. Guztiz jantzia. 85 m². 20 m²-ko garaje itxia ere badu. 635 74 43 91.

Eskoriatza. 119 metro koadro. Guztiz berritua. Erdi jantzitza dago. Sukaldea (jantzitza), despentsa, jangela, hiru logela, bi egongela, bainu-gela, komuna, eta ganbarra

ditu. Berehala bizitzera joateko aukera. Telefonoa: 666 05 46 20.

Hendaia. Apartamentua salgai. Logela bat. Igerilekua. 678 32 91 89.

Soraluze. Duplexa, duela bi urte eraikia. 120 m². Lau logela, hiru bainu-gela, sukalde hornitua, jan-egongela, trasteleku eta terraza txikia ditu. 37.500.000 pezeta. 661 34 59 84.

Soraluze. Etxe berritua salgai. 144m², sukaldea eta komuna jantzitza; txokoa ere badu. 615 77 95 20.

Soraluzen etxebizitza salgai. Gipuzkoa etorbidean dago. 85m²; hiru logela, despentsa eta ganbarra ditu. Deitu telefono honetara: 618 18 66 39 edo 943 71 60 18.

103. ERRENTAN EMAN

Almeria. Etxebizitza errentan, uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostaldietan. Telefonoa: 649 03 47 20 edo 950 30 33 35.

Aguilas (Murztzia). Hiru logelako etxebizitza errentan ematen da. 610 27 63 72.

Aretxabaletan etxebizitza alokatzen da. Telefonoa: 943 79 40 19.

Arrasate. Iturriotz kalean lau lagunendako etxebizitza alokatzen da. 943 77 03 38.

Arrasate. San Andres auzoan. 629 42 26 54.

Benidorm. Uztaileko lehen hamabostaldirako apartamentua errentan ematen da. Igerilekua du eta garajea. 480 euro. 653 72 53 43.

Calpe. Bi logeladun apartamentua, terraza eta telebistarekin. Hondartzarik gertu. Abuztuko lehenengo hamabostaldia. Telefonoa: 655 74 57 97.

Conil (Cadiz). Apartamentua errentan Bateles hondartzan. Irailetik aurrera. 680 44 26 68.

Conilen apartamentua alokatzen da. Bateles hondartzaren ondoan. Guztiz jantzitza. Irailean, urrian eta ondorengo hilabeteetan. Telefonoa: 680 44 26 68.

Donostia. Amara auzoan.

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

Uztailean eta abuztuan. 615 79 97 73.

Donostia. Apartamentua errentan Grosen. Uztailea, abuztua eta iraia. Ana Rosa. Telefonoa: 943 31 31 37 edo 652 76 27 86.

Donostia. Etxebizitza alokatzen da Gros auzoan, Zurriola hondartzaren lehen lerroan. Goitik behera berrituta. Uztailean, 2.404 euro. Irailean, 1.803 euro. 943 29 29 84.

Ezkarai. Lau lagunendako apartamentua alokatzen da. 685 72 16 98.

Gandia. Apartamentua hondartzaren ondoan. Urbanizazio itxian eta igerilekuarekin. 645 71 05 83.

Menorca. Itasotik 50 metro-ra dagoen txaleta. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainu-gela eta terraza. Ekain, uztaile edo irailarako. 610 27 63 72.

Noja. Apartamentua alokatzen da uztailean. Duplexa, itsasoari begira, oso polita. 696 90 94 43.

Peñíscola. Apartamentua. Igerilekua du. Hondartzatik gertu. Erabat jantzia. Telefonoa: 945 29 33 97 edo 665 73 23 99.

Peñíscola. San Juanetarako eta udarako ematen da errentan apartamentua, hondartzatik 100 metroa. Aparkaleku du, igerilekua eta gune pribatua. 610 87 83 57.

Ribadesella (Asturias). Bi logelako etxebizitza ematen da errentan asteburuetarako, asteetarako edota uztaileko eta iraileko hamabostaldietarako. 985 85 79 59 edo 647 46 84 81.

Salou. Apartamentua errentan ematen da, uztailean eta abuztuko lehen hamabostaldietan. Aire girotua dauka eta igerilekua. 653 72 53 85 edo 943 79 45 19.

ELGETA

PATXI TABERNA ESKUALDATU EGITEN DA. GALDETU TABERNAN BERTAN

Salou. Apartamentua errentan Jaime I pasealekuan. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Saloun. Apartamentua alokatzen da Gros auzoan. Jaime I. pasealekuan, Novelty eraikinean. Guztiz jantzitza, igerileku eta guzti. 943 81 42 38 edo 629 98 98 99.

Torrevejian apartamentua alokatzen da Gros auzoan. Uztailean, abuztuan eta irailean. Telefonoa: 943 79 52 94 edo 639 92 85 65.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi lagunek berogailudun etxebizitza hartuko lukete errentan. Telefonoa: 655 72 27 61.

Arrasate. Hiru ikasle etxebizitza errentan hartuko lukete. 676 39 01 21.

Arrasate/Aretxabaleta. Etxebizitza hartu nahi nuke errentan. 943 71 18 66.

Arrasaten etxebizitza alokatzen da. Ahal bada hutsik. Presazkoa da. 943 79 17 15.

Oñati. Bikote arduratsua batek etxebizitza errentan hartuko luke. Altzariarik gabekoa izan daiteke. 665 70 10 57.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaletan etxea osatzeko pertsona bat behar da. 605 77 46 57.

Arrasate. Neska behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 77 16 54.

Bergara. Neska behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua. 943 46 15 74.

Donostia. Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko, urritik aurrera. Presazkoa. Telefonoa: 607 91 15 43.

ELGETA

PATXI TABERNAN ZERBITZARIA BEHAR DA UZTAILAREN 1. 2 ETA 3AN. GALDETU TABERNAN BERTAN

Oñatin pertsona bat behar da etxea osatzeko. Etxea San Lorenzo auzoan dago. Telefonoa: 610 24 01 38.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Ibarrondo kalean. 943 76 65 03.

Bergara. Garajea salgai Torrekuan. 9.000 euro. 943 76 72 17.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Emakume bat behar da umeak zaintzeko. 635 75 72 57.

Arrasate. Emakumea behar da irailetik aurrera. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. Orduka. 665 70 69 25.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko. 658 72 10 18.

402. ESKAERAK

26 urteko neska euskaldunak haurrak zainduko litzuzke uztailean. Haur hezkuntzako titulua eta esperientziarekin. 656 76 65 69.

Arkitekto teknikoak lokal komertzialerako eta etxebizitzetako proiektuak eta zuzendaritza egingo litzuzke. 655 67 19 44.

Bergara. Uztailean eskola partikularrik eman edo umeak zainduko nituzke. 629 11 24 56.

Debagoiena. Neska gazte bat gertu lanerako. 635 74 60 78.

JATETXEA

SUKALDARIA BEHAR DA. AUTOA EDUKITZEA BEHARREZKOA.
655 71 18 37

Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Telefonoa: 659 44 76 75.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate eta Eskoriatza. Ingeleszko eskola partikularrik ematen ditu. Matematika, fisika, eta abar. Uztailean eskola bereziak. 630 71 35 83.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik ematen ditu. Matematika, fisika, eta abar. Uztailean eskola bereziak. 630 71 35 83.

Arrasate. Uztailean umeak ingelesezko eskolak emateko prest. Ordegute ikasleekin adostuko da. Marina. 618 82 02 48.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 gasolina. Bost urte ditu. 150.000 km. Oso egoera onean dago. Prezio interesgarria. 943 77 00 34.

Audi A4. 1.9 TDI. 110 zaldi. 1998koa. Egoera onean. Telefonoa: 645 77 74 65 edo 943 53 36 67.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. BKS matrikuladuna, 1998koa. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Ford Mondeo autoa salgai. 1.8T, 115 ZP. 81.000 km. 685 76 22 13.

Land Rover 88 Super autoa salgai. Egoera onean. Beti garajejan. Gauez deitu. 943 78 07 19.

Opel Vectra 2.0 TDI. Familiarra. Osagarri guztiak. Pre-

zio onak. Telefonoa: 627 93 09 42.

Suzuki motorra salgai. 49 cc eta 16.300 km. 300 euro. Gaueko 21:00etatik aurrera deitu. 680 31 26 44.

Yamaha WR 250F 4T motorra salgai. BRR matrikula. Ondo dago. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

Yamaha XJ 900 Diversion motorra salgai. Hiru maletarekin. Egoera onean; garajejan gordeta egon da. 943 78 15 57.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain txakurkume arra salgai. Oso argia da. 50 eurotan. 666 40 65 19.

Katu persiarak. Linea amerikarra. 680 44 26 68.

Setter txakurkumeak. Hiru koloretakoak. Gurasoak, oilagorretan ibiliak. Maiatzaren 19an jaiok. 678 43 31 07.

Spaniel arrazako bi txakurkume salgai. Hiru kolore jarrita dute. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

703. EMAN

Euskal artzain txakurkumeak oparitzen ditut. 943 76 05 40.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikleta estatikoa salgai. BH markakoa. Egoera onean. Prezio interesgarria. 627 75 81 94.

Bizikleta salgai. Cannondale R600 (Cadd5) beltza. 54 neurikoa. Plato hirukoitza. Bi urtekoa. Gutxi erabilitakoa. 800 euro. 678 72 89 18.

Denda-karroa salgai. 3,17 metroko luzera dauka eta 1,10 metroko altuera. Lau udatan erabilitakoa, eta beti garajejan gorde izandakoa. Felix. 645 70 59 13.

Emaztegiaren soinekoa salgai. 42-44 neurria. 480

euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Ezkongai soinekoa eta osagarriak salgai dauzkat. Marfil kolorekoa. 42-44. 480 eurotan. 943 08 00 81 edo 943 81 42 38.

Fagor Combi hozkailua salgai. Estreintatu barikoa. Prezio onean. 1,85 metroko altuera dauka. 943 79 88 57.

Karro-denda salgai. Autorari lotuta eramateko. Sango. Gauean jartzeko kutxa du. Prezio ona. 943 79 63 67.

Moser markako errepideko bizikleta salgai. Aluminioko koadroa. Prezio interesgarria. 943 77 18 63.

Ohe berria salgai. 90 zentimetrokoa. 675 00 88 27.

Olympus III 115 Kit argazkikamera eta Vodafone Live telefonoa salgai. Urtebete besterik ez daukate. 627 62 53 30 edo 943 79 40 44.

Piragua. Brijon Canyon. Hornitua. 400 euro. 656 77 82 81.

Play Station 2 eta 40 joko salgai. 215 euro. 943 79 72 53.

802. EROSI

Bizikleta estatikoa. 696 96 72 34.

806. GALDU

Aretxabaleta. Asteartean poltsikoko irrati bat galdu nuen (RP-67 G modelo) Otalora kalean, okindegi inguruan. Aurkitzen duenakin degian laga dezala edo telefono honetara dei dezala. 943 79 76 62.

Bergara. Orbea etxeko bizikleta galdu dit. 943 76 30 20.

Bergara. Ume beturrekoak, titaniozkoak, galdu ditut. Masterrekatik Mariaren Lagundia bitartean. 943 76 59 59.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil batek beste mutil batekin harremanak izan gura ditu. Interesatuak bidali SMSak honako telefonozenbakira. 665 75 58 74.


ZORIONAK!

Arrasate Institutuko irakasleen partetik, zorionik beroenak bigarren batxilergoko ikasleei, **denok selektibitatea gainditu duzue eta.**
Ondo pasau jaixak!

Arrasate
INSTITUTUA

HILDAKOAK

Juan Luis Igartua Idigoras. Oñatin, ekainaren 7an. 42 urte.
Miren Dorleta Villar Antxia. Arrasaten, ekainaren 9an. 41 urte.
Gabino Beitia Lizarazu. Oñatin, ekainaren 10ean. 79 urte.
Maria Rosario Gereka Tosantos. Oñatin, 10ean. 84 urte.
Herminia Muñoa Aranburu. Oñatin, ekainaren 11n. 84 urte.
Lorenzo Eriz Ormaetxea. Aramaion, ekainaren 12an. 80 urte.
Marcelino Ruiz Palomo. Arrasaten, ekainaren 14an. 68 urte.
Margarita Garmendia Astarloa. Bergaran, 14an. 87 urte.
Montserrat Ortubai Beitia. Arrasaten, ekainaren 15ean. 78 urte.
Ramona Aranguren Iribekanzos. Bergaran, 15ean. 87 urte.
Felipe Palomo Herrero. Eskoriatzan, ekainaren 15ean. 68 urte.
Maria Alberdi Etxezarreta. Antzuolan, ekainaren 15ean. 85 urte.
Jose Luis Marzan Otxoa. Bergaran, ekainaren 16an. 61 urte.
Natividad Orgaz Mesonero. Bergaran, ekainaren 16an. 80 urte.
Florencia Pagaldai Elkoroberezibar. Arrasaten, 18ean. 95 urte.
Andrea Cacho Garrote. Arrasaten, ekainaren 18an. 86 urte.
Catalina Mora Tamayo. Arrasaten, ekainaren 19an. 40 urte.
Miren Aiastui Kortazar. Bergaran, ekainaren 19an. 43 urte.
Itziar Astigarraga Egaña. Bergaran, ekainaren 19an. 82 urte.



Raul eta Ainhoa bergararrak bihar, ekainaren 25ean, ezkonduko dira Mariaren Lagundiko elizan. Lasa jatetxean egingo dute bazkaria. Ondoren, eztei-bidaian Mexikora joango dira. Ondo pasa eguna eta zorionak, bikote! Familiakoen partetik.



Gema Atxa arrasatearra eta **David Esteban** leioarra bihar, ekainaren 25ean, ezkonduko dira Dorletako Santutegian. Ondoren, Bazter-Alde jatetxean egingo dute bazkaria eta eztei-bidaian Kanada, AEBak eta Dominikar Errepublikara bisitatuko dituzte. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagunaren partetik!



Luzio Uribebarria eta **Margarita Bolinaga** arrasatearrek hilaren 18an urrezko ezteiak ospatu zituzten. Arantzazun meza entzun eta gero, Soraluze jatetxean bazkaldu zuten senitartekoekin. Senitartekoekin partetik, zorionak, bie!



Vanesa eta **Raul** arrasatearrek joan zen zapatuan, ekainaren 18an, ezkondu ziren Dorletako Santutegian. Eztei bazkaria Marisa jatetxean egin zuten. Zorionak, bikote! Amaren, Jonathanen eta Eiderren partetik.

URTEURRENA

Fernando Santamaria Franco

2000ko ekainaren 26an hil zen, 37 urte zituela.

Bosgarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 26an, 12:30etan, Bergarako San Pedro parrokian.

Zu ezagutu izanaren poza eta zure agurraren tristura gure oroimenean betiko.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurekin eskerririk asko emaztearen, seme-alaben eta gainerako sendikoen izenean.

ESKELA

Lourdes Arkotxa Ugarte

Arrasaten hil zen 2005eko ekainaren 17an.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.



Zure lankideak.
Arrasaten, 2005eko ekainaren 24an.

ESKELA

Jose Luis Marzan Otxoa

2005eko ekainaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

Erraustak ekainaren 26an, domeka, 11:00etan zabalduko dira Goriako zelaian.

Atsekabeen gurekin bat egin duzuen guztioi, eta Goriara etorriko zaretenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

Jendeak maite izan bazaitu, Jose Luis, aurrez zuk zeuk jende hori maitatu izan duzulako da!



Bergaran, 2005eko ekainaren 24an.

ESKELA

Miren Aiastui Kortazar

2005eko ekainaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

Lore bat bezala joan zera udaberria bukatzean. Gure bihotzean izango zera bizi garen artean.



Zure lagun koadrila.
Bergaran, 2005eko ekainaren 24an.

ESKELA

Miren Aiastui Kortazar

Gasteizen hil zen 2005eko ekainaren 19an.

*Zintzotasuna, lana...
Kemen, Indarra,
Ikastolari maitasuna...
Zuk ereindako hasiak!
Mila esker, Miren!
Laister loratuko diren
itaropenean, agur.
Ikusi arte.*



Aranzadi Ikastolako guraso, lankide eta ikasleak.
Bergaran, 2005eko ekainaren 24an.

ESKER ONA

Miren Aiastui Kortazar

Gasteizen hil zen 2005eko ekainaren 19an, 43 urte zituela.

Gaixotasunaren laburrean eta minaren sakonean lagundu diguzuenoi, mila esker bihotz-bihotzez, familia osoaren izenean.



Bergaran, 2005eko ekainaren 24an.

Sentsazioen askatasuna

Sofa edo besaulki bat erosi baino lehen, Stressless® bat proba ezazu. Plus Sistema™ esklusiboari esker, Stressless® sofa eta besaulkiek mugimendu askatasun paregabea eskaintzen dizute. Erabateko konforta da, eta kontzesionarioan duzu zain... Ez beste inon. Probatzera etor zaitez zure kontzesionarioa, eta konforta inoiz baino eskura errazagoa dela ohartuko zara.



www.ekornes.es

Sofak eta besaulkiak

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24




GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Akneak tratamendu eraginkorra eskatzen du.

Aknea (II)

Galdera hau egin digu
Iñakiren amak :
Iñakik 17 urte ditu eta
12 urte zituenetik aknearen
arazoarekin gabilta harantz
eta honantz. **Tratamendu asko
probatu ditugu, hala nola:
pomadak, xaboiak, lokatza
eta ur sulfuratua, baina ez
dugu lortu aknea sendatzerik,
eta aspertuta gaude dagoe-
neko.**

Iñakiren amari erantzuna:
Bost urtean soluziorik ez topa-
tuta, normala da aspertuta
egotea, baina litekeena da tra-
tamenduaren jarraipena ez iza-
tea egokiena. Emaizta onak ema-
tea asko kostatzen denean moti-
baziorik eza egoten da eta
tratamendua ez dugu behar
bezain ondo egiten. Tratamen-
duaren jarraipenean bezeroari
esaten diogu "goizean honako
hau egin behar duzu, gauean
beste hau, egun konkretu baten
kontsultatik pasatu behar
duzu...". Askotan gertatzen da
ipinitako tratamenduaren eran-
tzuna ez dela zuk uste duzuna,
eta aldaketa txikiak egin behar
izaten dira.

Iñakik meritu handia duela
uste dut, zeren ur sulfurosoak
edo sulfuratua hartzea (ez dago
frogatuta aknea osatzen duenik)

beti iruditu izan baitzait izuga-
rria, daukan usainagatik eta
zaporeagatik...

Bueno, zure mezuan ez ditu-
zu azalpen asko ematen, baina
seguruena pomada eta xaboi
asko erabili dituzu profesional
baten jarraipenik gabe; askotan
telebistan agertzen diren pro-
duktuak direlako, bertan jartzen
duelako edo beste pertsona
batek erabili duelako erabiltzen
ditugu. Zera egin behar da: gai
horretaz dakien profesionala-
rengana jo, arazoari irtenbide bat
emateko.

Horren gazte zarenean akne-
aren arazoa edukitzeak konno-
tazio oso bereziak ditu; izan dai-
teke pubertaroaren hasiera iza-
tea dagokion hormonon
alterazioarekin, eta tratamendu
hori oso desberdina izango da
15-16 urteko gazteenekin alde-
ratuz, haiena normalean poli-
morfoa izaten da-eta. Gaur egun
kasu gehienak bide normaletik
kontrolatzen dira (kanpoko tra-
tamendu batekin), baina izan
daiteke tratamendua barrukoa
izatea.

Ez dut zure semea ezagut-
zen, baina ziur nago azalaren
higiene onarekin, tratamendu
egokiarekin eta jarraipen ona-
rekin, semearen arazoa asko
txikituko litzatekeela.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Izena	Musika estilo	Atzizki destinatiboa
	Oskarbi	Hemen dagoena	
	Estalki		
	Izugarri		
Sodio kloruroa	Beldur bizi		Kiloa
Lego	Igaro den denbora		Maskaradeta ko pertsonaia
		Nongo atzizkia	
		Praiako herritar	
Iruzur, maula			Huts, akats
Hoteletako ikur			
		Rona	
		Modu atzizkia	
Udazken	*Deitura		
	Gaizto		
Egokia		Ardi hitz-elkarketan	
Indioaren sinboloa		Areago	
	Norat atzizkia		Sufrea
	Letra izena (ald)		Kriptona
Borrokak, gatazkak			Bigarren bokala
Beterre			

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



GUIKING

Txirrina
etengabe
jotzen ari da
norbait. Atea zabaldu eta
semea aurkitu du Irenek:
- Ama, ama! Aita eskaile-
retan behera erori da bi litro
whiski gainean dituela eta
muturra puskatu du!
- Eta ez zuen dena
zerrikeria bat eginda utziko,
ezta?
- Ez! Ahoa itxita man-
tendu du!

ESKUPEKORIK EZ

Behin joango Parisera, eta
Modestori Maxim's jatetxe
famatuan afaldu behar
duela sartu zaio kaskezurre-
an. Inguruko guztiak ea
erotu ote den, hura garestie-
gia dela, ez duela merezi...
Den-dena alferrik.

Azkenean bakarrik,
baina Modestok Maxim's-en
afaldu du.

Irteterakoan, atezaina
ikusi eta inguratu egin da:

- Badakit harrigarria
gertatuko zaizula orain
esango dizudana, baina...
Hara! Dirurik gabe geratu
naiz eta utziko al zenizkida-
ke hamar libera?

Atezainak aiton zaharra-
ren eskaera xelebrea entzun
eta kamera ezkutuko
muntaiaren bat izan
daitekeelakoan, txanpona
emateko eskua luzatu dio.
Orduan Modestok:

- Gorde ezazu, eman
behar nizun eskupekoa da!


BABARRUNAK ETA PETROLIOA

- Zergatik dituzte tolosarrek
babarrunak eta arabiarrek
petrolioa?

- (!!!)
- Tolosarrek lehenago
aukeratu zutelako!

SOLUZIOAK

E	R	R	E	I	G	E	B
•	K	A	R	R	E	G	•
S	•	T	A	R	•	N	I
T	R	A	•	V	A	N	•
N	E	I	O	I	G	A	U
E	T	A	R	A	G	•	•
M	U	R	•	A	R	Z	I
•	A	P	N	A	R	T	•
O	•	K	O	K	A	L	A
K	•	U	Z	I	•	G	•
A	P	A	T	•			
R	A	R	H	Z			
•	R	•	G	•			



Ekainaren 27a: 049 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen


txokoa

Sariak astero!


Astelehenean, ekainak 27, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Ekainaren 27ko sariak



- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- **ISTILU** etxeko kamiseta bat.
- **ISTILU** etxeko neskendako hiru Euskal-zapi.



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

048
zozketa

saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

KODAK ADVANTIX argazki-kamera.

- Josefina Aramendi
(Antzuola)

ISTILU etxeko kamiseta bat.

- Itziar Arkauz
(Arrasate)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Muruamendiaratz gozodenda
(Arrasate)
- Andoni Alberdi
(Oñati)






'Dantza txapelketa'
ASTEBURUA 25 eta 26 / * ikus beheko taula



'Marrazki bizidunak'
ASTEBURUA 25 eta 26 / * ikus beheko taula



'Bertsoak'
ASTELEHENA, 27/ 22:30



'Jaiak 2005'
MARTITZENA, 28 / 21:00 eta 22:30

Euskal Herriko Dantza Txapelketa Seguran

Bergarako ordezkari zabalabildien Seguran jokatu dako dantza txapelketa; hamabi bikotetik bost ziren bergararrak. Gainera, ez ziren gaizki ibili. Asier Enak eta Maite Lazkakok osatutako bikotea bigarren gelditu zen.

'Ipar Haizearen Erronka' animaziozko filma asteburuan

Marrazki bizidun berriak estreinatu ditugu asteburu honetan. *Ipar Haizearen erronka* izeneko marrazkiak dira. Hiru mutil gazte dira protagonista: Annie, Peiot eta Watuna. Hitzordua, asteburuetan izango duzue.

San Juanetako bertso ekitaldia Monterron parkean

Jokin Labaien, Enaitz Alustiza, Amaia Agirre, Aitor Mendiluze eta Amets Arzallus bertsolariak saio polita egin zuten Monterron parkean. Goiena Telebista bertan izan zen eta astelehenean, eta bertsolaritza saioa eskainiko dizue.

Arrasateko San Juan jaien gaineko saio berezia

Iritsi dira San Juan jaiak Arrasatera, eta, nola ez, Goiena Telebistak kalera ateratu du lantaldea. Ordubeteko programa berezia eskainiko digute martitzenean. Kaleko erreportajeak eta San Juan jaietako ikusizunak eskainiko dituzte, besteak beste.

TELEBERRIAK

'Baneki' saioa azken kapituluak jokatu dira datorren astetik aurrera

Azkenera heltzen ari da Goiena Telebistako *Baneki* lehiaketa. Hain justu ere, hiru saio geratzen dira bukatzeko eta, dagoeneko, badakigu nortzuk diren hiru talde finalistak: IZT (Eskoriatza), Leixargarateko Artaldie (Aretxabaleta) eta Korbutotxoak (Arrasate). Hiruren artean lehiatuko dira, binan-binan, eta datorren astetik aurrera ikus ahal izango dituzue hiru saio horiek. Hain justu ere, hilaren 27an eta 30ean, astelehen eta eguenean, eta uztailaren 4an, astelehenean, izango dira hiru saioak. Uztailaren 4koan ezagutuko dugu irabazlea. Port Aventura bidaiari irabaziko dute txapelak. Aste Santuaren ostean abiatu zen *Baneki* lehiaketa GOITBn. 12-16 urteko neska-mutikoek hartu dute parte lehiaketan, denak ere Debagoieneko ikastetxeetakoak. 24 taldek hartu dute parte eta talde bakoitzean lau lagunek. Saioa Mikel Aranburuk aurkeztu du. Goiena Telebista eta Debaguneren (ibarreko euskara elkarrekin elkarrekin) artean produzitu dute *Baneki*.

Eskuko telefonoetan ikusteko saioa

Sakelako telefonoan ikusteko telesail bat grabatuko du Globomedia produkzio-etxeak. *Los supervillanos* da saioaren izena eta udazkenerako gertu izango da. Diotenez, merkea izango da bideoak eskuratzea. Bideo bakoitzak hiru minutu iraungo du.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Ekainaren 24tik 30era

EGUBAKOITZA 24	ZAPATUA 25	DOMEKA 26	ASTELEHENA 27	MARTITZENA 28	EGUAZTENA 29	EGUENA 30
13:20 Baneki 13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Behazulo 15:00 Chiloé 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Ilunpean 21:30 Eguzki lore 22:00 Berriak 22:30 Ilunpean 23:00 Eguzki lore 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	11:05 Behazulo 11:35 Baneki 12:00 Marrazki bizidunak 13:10 Harmailatik: Urteari begiratu 13:40 Marrazki bizidunak 14:00 Ilunpean 14:30 Eguzki lore 15:05 Marrazki bizidunak Ipar Haizearen Erronka 16:00 Baneki 16:30 Jaun ta jabe 17:00 Klip@ 17:15 Behazulo 17:45 Debarri: Bergara 18:45 Marrazki bizidunak 20:00 Chiloé 20:30 Klip@ 20:45 Segurako Dantza Suelto Txapelketa 21:30 Emisio amaiera	11:05 Marrazki bizidunak: Ipar Haizearen Erronka 12:00 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa eta Lazkao Txiki 13:15 Segurako Dantza Suelto Txapelketa 14:00 Eguzki lore 14:30 Marrazki bizidunak 15:30 Chiloé 16:00 Marrazki bizidunak 17:30 Klip@ 17:45 Baneki 18:10 Baneki 18:35 Ilunpean 19:00 Marrazki bizidunak 20:15 Jaun ta jabe 20:45 Harmailatik 21:15 Debarri: Bergara 22:15 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Ilunpean 15:00 Eguzki lore 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Baneki 21:30 Harmailatik 22:00 Berriak 22:30 Bertso saioa 23:00 Harmailatik 00:00 Gaurkoak 00:15 Emisio amaiera	13:20 Baneki 13:50 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Harmailatik 15:00 Bertso saioa 16:00 Berriak Aurrerapena 16:15 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak Iratxo Magikoa 21:00 Jaiak 2005: San Juan jaiak 22:00 Berriak 22:30 Jaiak 2005: San Juan jaiak 23:00 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Jaiak 2005: San Juan jaiak 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Chiloé 21:30 Jaun ta jabe 22:00 Berriak 22:30 Chiloé 23:15 Jaun ta jabe 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	13:50 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Chiloé 15:00 Jaun ta jabe 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrazki bizidunak: Iratxo Magikoa 21:00 Baneki 21:30 Behazulo 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Behazulo 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera
13:20 Baneki	20:45 Dantza Txapelketa	11:05 Marrazki bizidunak	22:30 Bertso saioa	21:00 Jaiak 2005	21:00 Chiloé	21:30 Behazulo

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

Berriak

Gertu-gertuko informazioa

Egunero,
14:15ean eta
20:00etan,
astelehenetik
egubakoitzera

Aurkezleak:
Julen Iriondo
Deiane Arrieta



TELEBEGI/ Eneko Azkarate

Fraga eta galiziarra

Bartzelonan liga irabazi osteko ospakizunetan Eto'ok esandakoak aipatu nituen aurreko batean, gogorarazteko ospakizunak zein arriskutsuak izan daitezkeen, telebista kamerak aurrean badaude. Pertsona publiko orok badaki adierazpen publikoen arriskuak.

Galiziako bozketen atarian, hauteskunde kanpainan, Fragak esan zuen boto emailei gertatzen zaiela emakumei gertatzen zaiena, alegia, ez dutela sekula esaten botoa nori emango dioten, emakumeek aitoritzen ez duten moduan zenbatekin oheratu diren. Adierazpen horiek zalaparta handia sortu zuten eta Fragak ezeztatu behar izan zuen horrelakorik esan zuenik. Baina telebistaz ikus eta entzun ahal izan genuen Fraga adierazpen horiek egiten eta agerian geratu zen Fraga matxista izateaz gain, gezurtia ere badela.

Hala eta guztiz ere, Fragak irabazi egin du beste behin, ia-ia erabateko gehiengoz, gainera, gehienoi sinesgaitza egiten zaigun arren. Arrazoi izango ei du Haro Tecgleneke, dienean PPri botoa eman dioten milaka eta milaka galiziarra Fraga modukoak direla.

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA

- Gabilondo Arregi harategia (A)
Kalabarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez dokorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espolola 12

ESKORITZA

- Zubia harategia (B)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorenzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.

EUSKAL OKELA

"Badakigu saltzen dugun okela kalitate handienekoa dela"

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL
KALITATEA

Sokamuturra

Eduardo Arrillagaren argazki erakusketa

Bergarako Aroztegi jauregian / 2005eko uztailaren 1etik 24ra

Inaugurazioa

Uztailaren 1ean, ostirala,
20:00etan

Dj Ene!-ren emanaldia

Uztailaren 9an, larunbata,
19:00etatik 22:00etara

Iñaki Azkunereren hitzaldia

Sokamuturra
Uztailaren 15ean, ostirala,
20:00etan

Ordutegia

Astegunak: 18:30-20:30

Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-20:30


Igandeak: 18:30-20:30



AROTEGI
JAUREGIA



BERGARAKO
UDALA



Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Jose Luis Feo/ Argazkilaritza-zalea

Nola ateratzen da argazki bat 3-Dan ikusteko? Nik bi reflex argazki-kamera ditut euskarri berean eta horiexek erabiltzen ditut. Kliskatze bien artean, noski, ez da mugimendurik egon behar.

Betaurreko bereziekin ikusi behar ditugu gero?

Hainbat modu daude ikusteko. Adibidez, estereoskopioaren bidez. Ateratako bi diapositibak makina horretan sartzen badituzu, 3-Dan ikusiko dituzu.

Paperera pasa eta proiektatu ere egiten dituzu, ezta?

Paperekoak *anaglifoak* dira, bi koloreren bidez daude bananduta, eta ondo ikusteko, gorriak eta

urdinak diren betaurrekoak behar dituzu. Proiektatutako diapositibendako, berriz, polarizadoreak behar dira.

Noiz ikusi zenuen lehenengo aldiz estereoskopio bat?

Zarauzko foto museora joan ginen eta hantxe ezagutu nuen teknika hori. Nongoa zen eta nola erabiltzen zen galdetu nien, baina ez zekiten. Ikaragarri txunditu ninduen estereoskopio zahar hark eta nire kasa hasi nintzen ikasten. Duela bederatzi urte.

Bakarrik zaude?

Egia esan, bai. Ordu asko eskatzen ditu teknika horrek eta inor ez da animatzen.

Batzuetan bakarrik sentitzen naiz, ez dudalako beste inor aurkitzen ideiak eta esperientziak trukatzeko.

Neuk bakarrik egin dut gaur arteko ibilbidea. Materiala ere inork aholkatu gabe erosi dut eta gero konturatu naiz zerk balio duen eta zerk ez. Neure esperientzia baino ez dut. Ni bezalako ero gutxi daude inguruan.

Ordenagailuen garaia ere bada eta.

Bai, denak aurrera egiten duten bitartean, nik atzera egiten dut. Teknika hori argazkilaritza bera baino zaharragoa da, pentsa. Irudi geometriko batzuetan ikusi zuten lehendabiziko aldiz XIX. mendean eta argazki-kameretan aplikatu zuten gero.

XIX. mendean ere baziren 3-Dko argazkiak?

Frantziako ile apaindegietan paretako erlojuak bezalako kaxa batzuk zituzten. Txarteltxo

batzuk sartzen zituzten eta bi zuloxtotatik begiratuta, biluzik zeuden emakumeak ikusten ziren. Noski, argazki gehien zituen ile apaintzaileak zituen bezero gehien, ez ondoen orrazten zuenak.

Toki guztietara joaten zara argazki-kamera aldean duzula?

Lehen bai, baina orain ez horrenbeste.

Zenbat argazki-kamera dituzu etxean?

Estereoskopia teknika egiteko, bi pare ditut, lau.

Une egokiaren zain egoten zara argazkia ateratzeko?

Ez. **Argazkiak ateratzeko sasoirik egokiena zein da?**

Udazkena. Sasoi horretan umeak eta adinekoak oso ondo ateratzen dira.

“Udazkeneko argazkietan umeak eta adinekoak ondo agertzen dira”

“Frantziako ile apaindegietan emakume biluzien argazkiak ikusten zituzten estereoskopioarekin”

▶ Bergara / 43 urte / 3Dtan ateratzen ditu argazkiak



PIPERRAUTSA

Urtzen

Metafora ezagunen artean dago azukre koskorrena, “nola urtzen den koskorra uretan hala desegiten ari da...” nahi dena. Beno, ba niri metafora hau etorri zait gogora, Espainiako auzitegi nazionalak eman berri duen epaia jasota.

Ez naiz legelari, ez dut azterketa teknikorik egingo. Baina ez dago legelari izan beharrik harrapatzeko epai honek hankaz gora jartzen duela Garzonen dotrina ETari buruz, desegiten hasi dela haren eraikin juridikoa, azukre koskorra uretan nola.

Garzonek oso zimendu ahulean altxa zuen eraikina: ETaren inguruak ETA dira, beraz, terrorista. Eta zigor bera merezi dute ekintza armatuak eta babesak, laguntzak edo kideetasun ideologikoak. Bide horretatik etorri dira alderdiak legez kanporatzeak, egunkari ixteak eta auzipetze erraldoiak, 18/98+... siglapean bilduak.

Eta hori da, hain zuzen, auzitegi espainiarrak urtze bidean jarri duena: Jarrai eta enparauak ez dira ETA, beraz, ez dira terrorista, ez dutelako armarik erabiltzen. Deliturik leporatzen bazaie, horietara mugatzen da erantzukizuna. Horren arabera, 10 urteko zigorraren tokian, 4 urtez azpikoak etorri dira, dagoeneko bete duten kartzela aldia baino txikiagoak.

Demasa hori itzuliko ote zaien ez dakit, seguruenik ez. Eta, hala ere, poztu egin nau epaiak, Garzonen etxea urtzen hasi delako, azukre koskorra uretan nola.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51